

**Fiskalizazio Txostena**

**Informe de Fiscalización**

**Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Kontu  
Orokorra**

**Cuenta General del Territorio Histórico de  
Gipuzkoa**

**2009**





## AURKIBIDEA / ÍNDICE

I. SARRERA .....	7
II. IRITZIA .....	9
II.1 Foru Aldundia .....	9
II.1.1 Legea betetzeari buruzko iritzia .....	9
II.1.2 Urteko kontuei buruzko iritzia .....	12
II.2 Uliazpi Erakunde Autonomoa .....	12
II.3 Sozietate publikoak .....	13
III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMARI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK .....	14
III.1 Aurrekontua eta kontabilitatea .....	14
III.2 Sarrera fiskalak .....	16
III.3 Kontratazioa .....	18
III.4 Diru-laguntzak .....	20
III.5 Langileria .....	23
III.6 Ondarea .....	23
III.7 Uliazpi Erakunde Autonomoa .....	24
III.8 Izfe, SA Sozietate Publikoa .....	24
III.9 Bidegi, SA Sozietate Publikoa .....	25
III.10 Etorlur, Gipuzkoako Lurra, SA Sozietate Publikoa .....	25
IV. FINANTZEN ANALISIA .....	26
V. URTEKO KONTUAK .....	31
V.1 Foru Aldundiaren Kontuak .....	31
V.2 Uliazpi Erakunde Autonomoaren Kontuak .....	34
V.3 Sozietate Publikoen Kontuak .....	36
VI. GFA-REN ETA PASAI SAN PEDROKO ARRANTZALEEN KOFRADIAREN ARTEAN 2003-AN IZENPETUTAKO HITZARMENA .....	37
ALEGAZIOAK .....	39
BOTO PARTIKULARRA .....	61



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

<b>I. INTRODUCCIÓN .....</b>	<b>63</b>
<b>II. OPINIÓN .....</b>	<b>65</b>
II.1 Diputación Foral .....	65
II.1.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad .....	65
II.1.2 Opinión sobre las cuentas anuales.....	68
II.2 Organismo autónomo Uliazpi .....	68
II.3 Sociedades públicas.....	69
<b>III. CONSIDERACIONES SOBRE EL SISTEMA DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN.....</b>	<b>70</b>
III.1 Presupuesto y contabilidad .....	70
III.2 Ingresos fiscales .....	72
III.3 Contratación .....	75
III.4 Subvenciones.....	77
III.5 Personal.....	80
III.6 Patrimonio .....	80
III.7 Organismo Autónomo Uliazpi.....	80
III.8 Sociedad Pública Izfe, SA .....	81
III.9 Sociedad Pública Bidegi, SA .....	81
III.10 Sociedad Pública Etorlur, Gipuzkoako Lurra, SA.....	82
<b>IV. ANÁLISIS FINANCIERO .....</b>	<b>83</b>
<b>V. CUENTAS ANUALES .....</b>	<b>88</b>
V.1 Cuentas de la Diputación Foral .....	88
V.2 Cuentas del Organismo Autónomo Uliazpi .....	91
V.3 Cuentas de las Sociedades Públicas.....	93
<b>VI. FISCALIZACIÓN DEL CONVENIO SUSCRITO EN 2003 ENTRE DFG Y COFRADÍA PESCADORES DE PASAI SAN PEDRO .....</b>	<b>94</b>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

<b>ANEXOS .....</b>	<b>97</b>
A.1 Aspectos generales .....	97
A.2 Presupuesto .....	98
A.3 Gastos de personal .....	100
A.4 Compras de bienes corrientes y servicios.....	102
A.5 Transferencias y subvenciones corrientes y de capital concedidas.....	103
A.6 Inversiones reales, inmovilizado y patrimonio .....	105
A.7 Ingresos y deudores tributarios .....	107
A.8 Ingresos por transferencias y subvenciones corrientes y de capital.....	111
A.9 Inmovilizado financiero y activos financieros .....	114
A.10 Deuda y gastos financieros .....	116
A.11 Operaciones extrapresupuestarias .....	117
A.12 Tesorería e ingresos patrimoniales .....	119
A.13 Conciliación resultado presupuestario-patrimonial .....	119
A.14 Análisis de contratación .....	120
A.15 Análisis de subvenciones.....	126
A.16 Organismo Autónomo Uliazpi.....	130
A.17 Sociedad Pública Izfe, SA .....	131
A.18 Sociedad Pública Bidegi, SA .....	132
A.19 Sociedad Pública Etorlur, Gipuzkoako Lurra, SA.....	134
<b>ALEGACIONES .....</b>	<b>139</b>
<b>VOTO PARTICULAR .....</b>	<b>163</b>

Vitoria-Gasteiz, 2011ko abenduaren 22a

Vitoria-Gasteiz, 22 de diciembre de 2011





## I. SARRERA

Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2009ko ekitaldiko kontuari buruzko txosten hau Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren 1/1988 Legearen arabera burutu da, eta HKEEren Lanerako Planean jasoa dago.

Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Kontu Orokorrak ondotik zerrendatutako erakundeek 2009ko ekitaldian zehar gauzatutako aurrekontu, ondare eta diruzaintzako eragiketa guztiak besarkatzen ditu:

- Gipuzkoako Foru Aldundiak (aurrerantzean, GFA).
- Uliazpi Fundazioa foru erakunde autonomoak (adimen urri sakonekoei egoitza-arreta).
- Honako foru sozietate publikoek: Informatika Zerbitzuen Foru Elkartea-IZFE, SA (% 100eko partaidetza, foru eta udal administrazioei informatikako zerbitzuak ematen dizkie), Bidegi, Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia, SA (% 100eko partaidetza, A-8 eta AP-1 autobideak eta horien instalazio eta zerbitzuak mantentzea, kontserbatzea, eraikitzea eta ustiatzea du helburu) eta Etorlur Gipuzkoako Lurra, SA (% 100eko partaidetza, helburua jarduera ekonomikoak, etxebizitzak eta era guztietako ekipamendu publiko guztien kokaleku izateko lurzorua sustatu, antolatu, urbanizatu, erosi eta saltzea da eta nekazal erabilera eman dakioken lurzorua ustiatzea).

Fiskalizazioak honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezkoak: Honako atal hauetan: aurrekontua, zorpetzea eta finantza eragiketak, langileria, obren kontratazioa, erosketa eta zerbitzuak, dirulaguntzen emakida eta zuzenbide publikoko sarrerei buruzko arautegia.
- Kontularitzakoak: Kontu Orokorra ezargarriak diren kontularitzako printzipioen arabera mamitu den aztertuko dugu.
- Foru administrazioaren egoera ekonomikoaren finantza analisia.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren eraginkortasun eta zuhurtasunari buruzko azterlanik besarkatzen. Nolanahi dela ere, azaleratutako hutsak "Barne kontrolerako sistemari eta kudeaketa prozedurei buruzko irizpenak" idazpuruan xehetasunez jasoko ditugu.

Erakunde autonomoak eta foru sozietate publikoek dagozkien kanpo auditoretzako txostenak eginak dituzte.

HKEEren Osokoak onetsitako Lanerako Planak 2003ko urtean Pasai San Pedroko Arrantzaleen Kofradiaren eta GFAREN artean izenpetutako hitzarmenaren fiskalizazioa barne hartzen du, Gipuzkoako Batzar Nagusien Ogasun eta Finantzen Batzordeak hala eskatuta. Hitzarmen honen indarrez GFak Kofradiari Pasaiako Izotza, SAN zuen partaidetza besterendu zion eta zati batean HKEEk fiskalizatu zuen 2003ko ekitaldian; fiskalizazio lan hartatik ondorioztatu ziren ez-betetzeak ekitaldi horretako Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Kontu Orokorren txostenean barne hartu ziren. Sozietateak kapitalezko bi



diru-laguntza jaso zituen 2007ko ekitaldian, hurrenez hurren 96.000 eta 300.000 euroren zenbatekoan, Pasaiaiko izotz fabrika zaharberritu eta egokitzeko egindako inbertsioak finantzatzeko emanak; diru-laguntza horiek fiskalizatu egin ziren eta azaleratutako ez-betetzeak Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2007ko ekitaldiaren Kontu Orokorraren gaineko Txostenean barne hartu ziren. GFAk ez du bestelako eragiketarik gauzatu bi erakunde hauekin (ikus VI. idazpurua).





Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## II. IRITZIA

### II.1 FORU ALDUNDIA

#### II.1.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

##### ZERGA SALBUESPENAK, KENKARIAK ETA HOBARIAK (ikus A.8)

1. 2009ko irailaren 9an Europako Batasuneko Lehen Auzialdiko Epaitegiak ezetsi egin zituen GFak aurkeztutako errekurtsuak, Europako Batzordeak 11/1993 FAren 14. artikulua, 7/1996 FAren 26. artikulua eta 7/1997 FAren Xedapen Gehigarri 10.a ez-legezko izendatzeko erabakiari zegokionez. Horren aurrean, GFak 2009ko azaroaren 23an kasazioko errekurtsua aurkeztu zuen Europako Erkidegoetako Auzitegiaren aurrean aurreko epaien aurka. Europako Erkidegoetako Auzitegiak 2011ko ekainaren 9an eta uztailaren 28an kasazioko errekurtsuak ebatzi zituen eta horiek behin-betiko baieztatzen dute ez-legezkoak direla ondoko Foru Arauek araututako laguntzak: 1171993 Foru Arauaren 14. Artikulua; 7/1996 Foru Arauaren 26. Artikulua eta 7/1997 Foru Arauaren Xedapen Gehigarri Hamargarrena.

2007tik aurrera GFak auzi-gai ziren laguntzak berreskuratzeko ekintzak gauzatu zituen. Jarduera hauei dagokienez, Europako Batzordeak 2011ko apirilaren 15ean demanda aurkeztu du Europako Erkidegoetako Auzitegiaren aurrean Espainiako Erreinuaren aurka, izan ere, hartutako neurriei ez die laguntzak berreskuratzeko behar hainbateko iritzi 7/1996 Foru Arauaren 26. Artikuluan eta 7/1997 Foru Arauaren Xedapen Gehigarri 10.ean aurreikusitako zerga kenkari eta hobarien kasuan.

11/1993 Foru Arauaren 14. artikulua arautzen dituen zerga laguntzei dagokienez, 2009ko irailaren 29an Europako Erkidegoak laguntza hauek berreskuratzeko erabakiak ez gauzatzeari buruzko espedientea artxibatzea erabaki du.

Bestalde, ebazteko daude 11 enpresak Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiaren aurrean aurkeztutako errekurtsuak; izan ere, Foru Auzitegi Ekonomiko-Administratiboak ezetsi egin baitzituen Ogasuneko Zuzendari Nagusiak ebatzitako ebazpenekin loturik aurkeztutako errekurtsuak, zeinaren indarrez zerga salbuespenak, kenkariak eta hobariak itzultzeko eskatu baitzitzaien.

## SARRERA FISKALAK

2005ean GFaren Finantzen Zuzendaritzako Artekiritza eta Auditoria Zerbitzuak irregulartasunak ikusi zituen Irungo Dirubilketa Bulegoak izapidetutako zerga-sarrerak baliogabetzeko espedienteetan. GFak espediente horiek Ministerio Fiskalari igorri zizkion 2006an eta honek 2007an, ustez erantzukizun penalak eragin zitzaizketen aztarnen aurrean, zegokion salaketa aurkeztu zuen Irungo Instrukzioko Epaitegiaren aurrean. Txosten hau idatzi dugun datan ebazteko dago salaketa horrek eragin zuen prozedura judiziala; horren bidez GFak eskatzen du aipatutako irregulartasunen ustezko erantzuleek Gipuzkoako Ogasunari eragindako kalteengatik ordainak eman behar dizkiotela.



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

2. 2009ko aurrekontu-ekitaldiaren itxieran, zerga zorrak geroratzeko 78 eskabide daude, guztira 37,7 milioi euro egiten dutenak eta ebatzi ez direnak, sei hilabetetik gorako antzinatasuna izanik; honenbestez, urratu egin da Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Diru-bilketako Erregelamenduaren 44.2 artikulua. Gerorapenak ebaztean atzerapen hau izateak ordainketa-plan bat ez dela finkatu eta ez direla dagozkion bermeak eskatu esan nahi du.

### LANGILERIA-GASTUAK

3. GFAk zortzi langileri guztira 449.739 euroren zenbatekoa ordaindu die borondatezko erretiro sarien kontzeptuan; sari horiek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergatik salbuetsitako laneko irabazi modura barne hartzen ditu, 2009ko ekainaren 7ko Diputatuen Kontseiluak hartutako Erabakiaren babesean, zeinak Giza Baliabideen Plan Estrategikoa aldarazi zuen. Salbuetsitako errentatzat hartzeko beharrezkoa da Langileen Estatutuaren 51. artikuluan zehazten diren kausetakoren bat gertatzea eta inguruabar hori ez da egiaztatu Giza Baliabideen Plan Estrategikoan.

### ERAKUNDE KONPROMISOAK

4. Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak (HDEK) 2010eko otsailaren 12an 15,8 milioi euroko aparteko ekarpena adostu du Bizkaiko Foru Aldundiaren alde, Ondarearen gaineko Zerga Gipuzkoako Lurralde Historikoan soilik mantentzeak baliabideen banaketa moldean eta ekarpenak zehaztean izandako eraginaren ondorioz. Zenbatekoa finantzatuko da ondotik zehaztutakoek egindako ekarpenen bidez: Eusko Jaurlaritzak 8,1 milioi eurokoa; Arabako Foru Aldundiak 307.620 eurokoa; eta GFAk, 7,4 milioi eurokoa. Erabakiak ez du arrazoitzen ez zenbatekoen kalkulua, ez zein legezko oinarriaren arabera hartzen den eta Ekarpenen Legean ez dago horretarako legezko erreferenterik.

### ADMINISTRAZIOKO KONTRATAZIOA

5. Bederatzi zerbitzu kontratatu dira, guztira 1,0 milioi euroren zenbatekoan, publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bitartez; ordea, arrazoi teknikoak edo prozedura hori erabiltzeko bide ematen duten eskubide eskusiboen babesarekin lotutakoak ez dira behar hainbat egiaztatu. GFAk urratu egin ditu publizitate eta lehia printzipioak, ez baitu kontratazio arautegiak aurreikusten duen esleipenerako prozedura irekiaren moldea erabili (ikus A.14.3).
6. GFAk publizitate betekizunak saihestuta 5 kontratu zatikatu ditu, publizitate betekizunak saihestuz eta SPKLren 74.2 artikuluan xedatutakoa urratuz (ikus A.14.4).
7. Eibarko Egogain egoitzan asteburuetako zaintzaileen zerbitzu ematea, 2009ko ekitaldian 1,7 milioi euroko gastua eragin duena, aurreko ekitaldietan zerbitzua ematen zuen enpresarekin zuzenean kontratatu da, kontratazioaren arautegian aurreikusitako luzapen kopuru gehiengoa ahitua zuen lehiaketa publikoa esleituta. Honela, bada, gastua zorpetu da zegokion prozedura irekia gauzatu gabe.



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

8. Guztira 58,1 milioi euroren zenbatekoan eslietu diren hiru obra-kontratuk esleipen zenbatekoaren gainean hurrenez hurren % 32, % 46 eta % 53ko igoerak izan dituzte, aldaketak onetsi eta obra osagarriak esleitu direlako (13, 14 eta 18 zk.ko esp. A.14an).  
Gainera, 31,3 milioi euroan esleitu zen obra kontratu batean (15 zk.ko esp. A.14an), 2009ko ekitaldian aldaketa bat onetsi zen, hasierako esleipenaren gainean % 44ko igoera ekonomikoa zekarrena eta % 49ko epe luzapena; hori dela eta, martxoaren 30eko 38/1999 Foru Dekretu baten indarrez, txostena eskatu zitzaion GLHren Aholku Batzorde Juridikoari eta honek 2009ko martxoaren 11ko 3/2009 Irizpen bidez baimendu egin zuen. Aipatutako kontratuen exekuzioan halako aldaketa adierazgarriek administrazioko kontratazioaren arautegian jasotako lehiaketa printzipioak urratzen dituzte, izan ere, igoeren zenbatekoak desitxuratu egiten baitu bai kontratuaren xedea, bai kontratuaren bolumen ekonomikoa ere.
9. Guztira 885.026 euroan esleitu zen obra kontratu baten aldaketa, 224.056 eurokoa, (22. esp. A.14an) onetsi aurretik gauzatu zen.
10. Errepideko garraio zerbitzuaren emakida bati dagokionez, Diputatuen Kontseiluak enpresa emakidadunari 3,0 milioi euroko konpentsazioa ordaintzea erabaki zuen (ikus a.15) emakidaren oreka ekonomikoari eusteko, horren gaineko hainbat aldaketa onartu ondoren (zerbitzu berriak txertatzea eta prezioa kalkulatzeko modua aldatzea). Aldaketa hauek, aurreko ekitaldietan onetsitako beste batzuekin batera, indarreko kontratua eta hasiera batean lehiatutakoa guztiz bestelakoak izatea dakar eta horrenbestez, kontratuaren xedea desitxuratu geratu da. Publizitate eta lehia printzipioekiko errespetuak emakida berriz lehiatzea eskatuko luke.

### DIRU-LAGUNTZAK (ikus A.15)

11. Diputatuen Kontseiluak diru-laguntzak eman dizkie modu zuzenean 8 toki-erakunderi (1, 2, 6 eta 7 espedienteak) eta irabazi asmorik gabeko 8 erakunderi (16, 17, 18, 19, 20, 21, 25 eta 27 espedienteak), guztira 7,5 milioi euroren zenbatekoan; ordea, ez da behar hainbat justifikatu publizitate eta lehia ezartzek ezintasuna.

Epaitegi honen iritzira, 1. paragrafoan adierazitako zalantza egoera eta 2tik 12ra bitarteko paragrafoetan azaldutako ez-betetzeak salbuetsita, Gipuzkoako Foru Aldundiak zuzentasunez bete du 2009ko ekitaldian bere ekonomia-finantza jarduera arautzen duen lege arautegia.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## II.1.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

1. GFAREN Diruzaintza Geldikinak 2009ko abenduaren 31n 17,1 milioi euro egin behar luke behera, ondoko doiketa hauen ondorioz:

		Euroak milakotan
		D. Geldikina
		31.12.2009
ERANSKINA		
A.7	Zerga zordun eta hartzekodunak, aurrekontu kontabilitatean erregistratu gabeko zuzkiduretatik garbi	22.345
A.14	2009ko obra ziurtagiriak, 2010ean erregistratutakoak.....	(5.226)
GUZTIRA		17.119

2. Ibilgetuko hainbat kontuk 2009ko abenduaren 31n 704,2 eta 233,8 milioi euroko kostu eta amortizazio-funtsaren balioak dituzte eta ez dute kostua eta amortizazio funtsa egiaztatzea bideratuko duen banakako xehapenik. (ikus A.6).

Azpiegitura hidraulikoak erabiltzen dituzten mankomunitate eta partzuergoei egindako lagapena ez da erregistratu; horiek, guztira 401,6 milioi euroko zenbateko garbiarekin daude erregistratuak.

3. Konpromiso-kredituen egoerak ez ditu lehenagoko ekitaldietan emandako diru-laguntza kontzeptuan etorkizuneko gastuen obligazioak jasotzen, 10,6 milioi eurokoak (ikus A.15).

Epaitegi honen iritzira, aurreko 1etik 3ra bitarteko paragrafoetan aipatutako salbuespenak alde batera, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kontu Orokorrak alderdi esanguratsu guztietan erakusten du 2009ko aurrekontu ekitaldiaren jarduera ekonomikoa, ondarearen isla leiala eta 09.12.31n finantza egoera eta ekitaldian bere eragiketen emaitzena.

## II.2 ULIAZPI ERAKUNDE AUTONOMOA

Epaitegi honen iritzira, Uliazpi Erakunde Autonomoak zuzentasunez bete du 2009ko ekitaldian ekonomia-finantza jarduera arautzen duen lege arautegia eta bere kontuek alderdi esanguratsu guztietan erakusten dute ekitaldi horren jarduera ekonomikoa, baita ondarearen eta finantza egoeraren isla leiala ere ekitaldi itxieran.

### II.3 SOZIETATE PUBLIKOAK

1. Bidegi, SAk guztira 12,8 milioi euroko zenbatekoan esleitutako 5 kontraturen lehiaketa (1, 4, 5, 6 eta 7) ez zen Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta horrek SPKLren 174.1.b) artikulua urratzen du (ikus A.18).
2. Bidegi, SAk 106,6 milioi euroren zenbatekoan esleitutako obra kontratu batek igoyerak izan ditu aldaketak eta obra osagarriak onetsi direlako, esleipen-zenbateko horren gainean % 52 egin dutenak (8. espediente). Bestalde, 2011ko ekainean onetsitako obra nagusiaren likidazioak % 22ko igoera osagarria aurreikusten du, inongo kontratu aldaketak babesten ez duena (ikus A.18).  
  
Aipatutako kontratua betetzean halako aldaketa adierazgarriak egiteak administrazioko kontratazioaren araudian jasotako lehia printzipioak urratzen ditu, igoreen zenbatekoak bai kontratuaren xedea, bai kontratuaren bolumen ekonomikoa ere desitxuratzen duelako.
3. 2009ko urtean mugagabe bihurtu dira aurreko ekitaldietan gauzatutako Etorlur, SAko aldi baterako 2 langileren kontratuak, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak bete izana bermatuko duen prozedurarik batere egin gabe (ikus A.19.5).
4. Etorlur, SAk ez du indarreko izakinen balioa egiaztatzeke adinako informaziorik, ekitaldi itxieran egoeraren balantzean eta balio garbi gauzagarriaren arabera, 33,1 milioi euroko balioa dutenak; ezinezkoa da jakitea, beraz, balorazio-zuzenketarik egiteko beharrik dagoen (ikus A.19.1).

Epaitegi honen iritzira, 1etik 3ra bitarteko paragrafoetan adierazitako salbuespenak alde batera, GFaren baitako diren sozietate publikoek zuzentasunez bete dute 2009ko ekitaldian ekonomia-finantza jarduera arautzen duen legezko arautegia eta 4. Paragrafoan adierazitako zalantza-egoerak izan zezakeen eragina alde batera, bere kontuek alderdi esanguratsu guztietan erakusten dute ekitaldi horren jarduera ekonomikoa, baita ondarearen eta finantza egoeraren isla leiala ere ekitaldi itxieran.



### III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEN ETA KUDEAKETA PROZEDUREN GAINEKO IRIZPENAK

Atal honetan ekonomia-finantza jardueran buru egiten duten printzipioak betetzeko eraginik ez duten akatsak ez ezik, kudeaketa hobetzeko azaleratzen diren prozedurazko alderdiak ere azpimarratu dira.

#### III.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

##### Konpromiso kredituak

- Diputatuen Kontseiluak 3,2 milioi euroren zenbateko urteanitzeko gastuak baimendu zituen; ordeak, horien exekuzioari ez zaio ekitaldian ekin, 4/2007 Foru Arauaren 54.7 artikulua aurreikusten duen moduan, GLHren Finantza eta Aurrekontuen Araubideari buruzkoak.
- Konpromiso kredituen egoerak ez du 2010etik 2012ra bitarteko ekitaldietan Berrikuntza Funtsera egin beharreko ekarpenen kontzeptuko konpromisoa jasotzen, 5,9 milioi euro ingurukoa; Berrikuntza Funtsa 2007an sortu zuen Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak eta Eusko Jaurlaritzak kudeatzen du (ikus A.5.1).

##### Aurrekontuko aldaketak

- GFak SASFALen (foru administrazioko funtzionarioei osasun-laguntza emateko sistema) sarrera eta gastuak jasotzen dituzten kontusailei 6.000 euroko hasierako aurrekontua esleitzen die eta kopuru hori 2,3 milioi euro inguruko zenbatekora arte gehitzeko kredituak gaitzeko espedienteak bideratzen ditu. Historikoki behin eta berriz errepikatu den egoera hau ekitaldiko gastua eta sarrera egokiro aurrekontu eginda zuzendu behar litzateke.

##### Diruzaintza Gaindikina eta Erabili gabeko zorpetzea

- GFak, azken ekitaldietan zehar, baimendutako eta erabili gabeko zorpetze bidezko sarrerek aurrekontuan kontabilizatu ditu; sarrera horiek ekitaldi bakoitzeko aurrekontuen emaitzak handitu dituzte eta gaurko egunez, Diruzaintzako Gaindikinean jasoak daude. 2009ko ekitaldi itxieran, baimendutako eta erabili gabeko 184,9 milioi euroko zorpetzea dago, kontsolidatutako Diruzaintza Geldikinaren atal dena.

Nolanahi dela ere, Diruzaintzako Geldikinaren berri ematerakoan, "Erabili gabeko kreditu eragiketekin Diruzaintzako Geldikin Bateratua" izeneko kontzeptua zehazten du; kontzeptu honek besarkatzen du 2009ko abenduaren 31ko Diruzaintzako Geldikin Erabilgarria, guztira 142,1 milioi euro negatibo egiten dituen, eta kreditu-lerroen bidez gauzatutako aurrekontu finantziazioa, erabili ez dena, aipatutako 184,9 milioi euro egiten dituen.

- 2009ko ekitaldian, 20 milioi euroko kreditu lerro baten zati bat epe luzeko mailegu batek ordezkatzeko du. Funtsen egiazko erabilera 2009ko ekitaldian egiten da baina eragiketa



hau ez da aurrekontuan erregistratzen, izan ere, aurreko paragrafoetan deskribatutako kontabilizatze irizpidearen arabera, dagozkion diru-sarrerak jada kontuetaratuak baitzeuden aurreko ekitaldietan. Eragiketa hau kontularitzan egoki islatzeko aipatutako 20,0 milioi euroko zenbatekoa sarrera modura erregistratu behar zatekeen mailegu berriagatik; eta gastu modura kreditua baliogabetzeagatik, finantza pasiboen bariazioko kapituluetan.

### Beste alderdi batzuk

- GFAk inbertsio errealean kapituluaren barruan “errepideak, bideak eta basoko pistak hobetzea” kontzeptuan kontabilizatu du, 2009ko ekitaldian 57,9 milioi euroko gastua izan duena; ordea, ondareari dagokionez, galera eta irabazien atalean erregistratzen da, izan ere, nagusiki konponketak izan direnez, kapitalizagarritzat jotzen ez diren eragiketak jasotzen baititu. Berebat, badira beste hainbat kontzeptu aurrekontuan inbertsio errealean kapituluaren barruan erregistratzen direnak eta gero ondare kontabilitatean erregularizatzen direnak (kapitalizatu gabeko inbertsioak, 594.200 eurokoak, eta beste erakunde batzuentzat egindako lanak, 8,5 milioi eurokoak).
- Desjabetzeen aurrekontuzko exekuzioa banakako ordainketa bidez egiten da, zeinetan aurrekontu exekuzioaren atal guztiak ekintza bakar batean metatzen baitira.
- Kanpoko enpresek egindako bestelako lanak” aurrekontuko azpi-kontzeptuak 8,3 milioi euroko exekutututako gastua du eta era honetako kontzeptuak besarkatzen ditu: txostenak, laguntza teknikoak eta beste, euren aurrekontu aplikazio propioa dutenak; honenbestez, kontzeptukako aurrekontu exekuzioaren informazioa desitxurutzen ari da.
- Ibilgetu finantzarioaren balio-galeragatiko zuzkidura ez dago gaurkotua. GFAk gaurkotu egin behar du zuzkidura, partaidetzen dituen enpresen urteko kontuetatik eratortzen diren balorazioen arabera. 2009ko ekitaldi itxieran egindako berrikustetik ondorioztatu da zuzkidurak 2,1 milioi euro egin behar lukeela gora.
- Akats informatiko baten ondorioz, kaudimengaeziengatik zuzkidura 10,8 milioi euroan gutxietsia dago eta erakunde konpromisoetarako zuzkidura, berriz, 8,9 milioi euroan gaintetik balioetsia (ikus A.7).
- Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorra onesten dituen 10/2007 Foru Arauaren 22. artikulua agintzen du aurrekontuan bereizirik aurreikusi gabeko zeinahi plaza edo lanpostu sortu ahal izateko, alde aurretik beste plaza edo lanpostu batzuk amortizatu beharko direla, osotasunean zuzkidura ekonomiko bera edo handiagoa izango dutenak, hainbat salbuespenekin. Mugaketa hau ezin da foru sozietate publikoetara hedatu.

**Komenigarria litzateke aurrekontuen foru arauak aurrekontuaren kudeaketa eta langileria-gastuei buruzko foru sozietate publikoen zenbait alderdi arautzea, hala nola, plantilla handitzeak eta ordainsari igoerak, bizitza aseguruak, e.a.**



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## III.2 SARRERA FISKALAK

### Sarreraren baliogabetzea

- Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorraren 194.3 artikulua agintzen du zerga zigorrak barkatzeko betekizunak eta prozedura erregelamendu bidez arautuko dela ezarritako zigorraren exekuzioak larritasunez eta hein handian kaltetuko balu ekoizpen-gaitasunaren aribidea edo interes orokorrerako kalte larriak eragingo balitu. Erregelamendu hori VI. kapituluaren garatzen duen 42/2006 Foru Dekretuak ez ditu parametro zehatzak bereizten barkamena modu objektiboan gauzatzeko.

Horren ondorioz, barkamen-ehunekoak oso bestelakoak dira kasu batzuetatik besteetara. 2009ko ekitaldian 90 zorduni guztira 7,4 milioi euroren zenbateko zerga-zigorrak barkatu zaizkie, barkamen-ehunekoak % 50 eta % 100 bitartekoak izanik. Azpimarratzekoa da aipatutako kopuru horretan kirol elkarte bati oso-osorik barkatutako 6,4 milioi euroko zigorra; elkarte honek, gainera, 2009ko ekitaldian 6,0 milioi euroko diru-laguntza zuzena jaso du (ikus A.15).

Kirol elkarte honi dagokionez alderdi hauek azpimarratu behar ditugu:

- Elkarte honetan ikuskapen fiskala egin zuten 2008ko ekitaldian hainbat zerga zirela-eta. Ikuskapen horren ondorioz, 2009ko urrian bi akta jiratu ziren, zeinaren indarrez elkarte horrek GFAREN alde 11,3 milioi euro ingesatu behar zituzkeen NUIZengatik zerga-zor kontzeptuan eta 6,4 milioi euro zigorraren kontzeptuan; azken kopuru honen ordainketa, aurreko paragrafoan azaldu bezala, barkatu egin zaio eta Ogasun eta Finantza Diputatuak onetsi du, bera baita horretarako eskumena duen organoa. Ikuskapen prozesu berean eta BEZari loturik balizko zerga-delitua egon zitekeela iritzita, 2009ko urtarrilean salaketa aurkeztu zen Donostiako instrukzioko epaitegiaren aurrean eta horren ondorioz, administrazio-prozedura eten zen. 2010eko uztailaren 14an salaketa horretatik eratorritako eginbideak artxibatu egin ziren. Ikuskaritza prozedurari ekin zitzaion berriz eta 2010eko abenduan amaitu zen beste akta batekin; horren arabera, elkarteak GFAREN alde 4,0 milioi euro ingesatu behar zituzkeen BEZgatiko zerga zor kontzeptuan. Txosten hau idatzi dugun datan, ez da zergapeko honekin loturik bestelako inongo ikuskaritza prozesurik abiarazi.
- Esan behar da kirol elkarte honi borondatezko lehia egoera aitortu zitzaiola 2008ko uztailaren 3an eta proposatutako Hitzarmena judizialki epai bidez onetsi zela, Donostiako Merkataritzako Epaitegiaren 2010eko urtarrilaren 14an. Hitzarmen hau 2010ean kreditu arrunt eta mendekoen gainean, une horretan 3,6 milioi euro egiten zutenak, % 40ko kita eginda gauzatu zen eta ondoriozko saldoa (2,1 milioi euro) 20 urtean iraungitzeko partaidetzazko mailegu bihurtu zen, 3 urteko gabezialdiarekin. Bestalde, hil hartan bertan izenpetu zen kreditu lehentasunezko eta pribilejiozko buruzko Aparteko Erabakiak ezartzen zuen kreditu haiek guztiak 25 urteko iraungipena izango zuen partaidetzazko mailegu bihurtuko zirela; une hartan 15,9 milioi euroan zeuden zenbatetsiak. Zenbateko horiei, hurrenez hurren, kreditu arruntan 2,3 milioi euro eta pribilejiozko kredituen 1,7 milioi euroko zenbatekoak gaineratu behar zaizkie, aurreko paragrafoan aipatzen zen BEZgatiko ikuskaritza aktaren ondorioz zorraren gainean egindako sailkapenaren arabera.





Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

- Bi hitzarmenen bitartez zorrak berreskuratzeko baldintzak -judiziala kreditu arrunt eta mendekoei buruzkoa eta apartekoa, pribilejiozko kredituei dagokiena-, oinarrian bat bera dira eta jokalaria edo higiezinak saltzetik eratorritako diru-sarreraren gaineko ehuneko aldakor batek mugatzen ditu, segun elkartea lehenengo mailan dagoen (% 20) edo ez (% 15); baita diru-sarrera ezohiko edo apartekoetatik eratorritakoak ere; ez dira hemen barne hartzen jaso dituen diru-laguntzak edo etorkizunean jaso ditzakeenak. Bi hitzarmenek ordainketa sustapen, publizitate edo babesletza ekintzen bitartez egiteko aukera ere aurreikusten dute.
- Batzar Nagusiek onartutako 2008ko ekitaldiko aurrekontuek elkarte honen alde 6 milioi euroko diru-laguntza nominatiboa aurreikusten zuten; ordea, ez da ekitaldi horretan aurrekontuko aurreikuspen hori egikaritu erakundearen egoera fiskalaren ondorioz. 2009ko ekitaldian Diputatuen Kontseiluak 6 milioi euroko diru-laguntza zuzena eman zion elkarte honi, alde aurreko fiskalizazioaren izapidera meneratu gabe, 4/2007 Foru Arauaren 138.3 artikulua aurreikusten duen moduan. Elkarte horrek, ordea, diru-laguntza publikoen onuradun izatea eragozten dioten hainbat inguruabar ditu, 3/2007 Foru Arauaren 12.2 artikularen b) eta e) letren arabera, hurrenez hurren, kaudimenari (konkurtsu egoeran ez egotea) eta zerga eta Gizarte Segurantzarekiko obligazioen ordainketan eguneratua egoteari buruzkoak. Nolanahi den ere, aipatutako 12.2 artikulua berak jasotako aurreikuspena ezarriz, Diputatuen Kontseiluak erabaki zuen onuradun hau baldintza horiek betetzetik salbustea.

Hitzarmenak Gipuzkoako futboleko talentuak hautatu eta prestatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta kirol elkartearen arteko lankidetzak marko arautzen du; nolahi, ez du ekintzen banakatzea aurreikusten, horien eta diru-laguntzaren arteko korrelazioa egiaztatzeko bide emango duena.

- 2009ko ekitalditik aurrera ez da kreditu kobraezinen kontzeptuan baxerik egiten, izan ere, zordunen ondare egoeran aldaketak gertatuz gero zenbaitetan kreditu horiek berrezarri behar izaten baitira. Gaur egun, bada, zor hauei ez zaie baja ematen preskribatu arte. Kreditu horiei dagokienez, GFA erantzukizuna bideratzeko prozedura abiarazteko aukera aztertzen ari da, GLHren 2/2005 Zergen Foru Arau Orokorraren 178tik 182ra bitarteko artikuluetan aurreikusia dagoena; prozedura hau soilik 50.000 eurotik gorako zorrentzako da eta kopuru txikiagoetarako, baldin eta jaso gabeko jaraunspen eta ondasunen erkidegoei badagozkie.

**Zor guzti hauei dagokienez, preskribitu aurretik erantzukizuna bideratzeko prozedura abiarazteko aukera azertu behar litzatekeela uste dugu.**

### Zerga zorren ordainketaren gerorapenak

- Ekitaldian 7,4 milioi euroren zenbatekoarekin emandako 11 gerorapenetan, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Diru-bilketa Erregelamenduaren 44.2 artikuluan ezarritako sei hilabeteko epea gainditu da eskabidea aurkezten denetik ebazpena jakinarazteko.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Atzeraldi hauek esan nahi dute zorraren ordainketak zergapekoak gerorapen eskabidearekin batera aurkeztutako ordainketa-planaren arabera egiten direla, GFak onetsi ez duena eta onetsi bitarte arte dagozkion bermeak ez direla eratzten.

- Gainera, 440.692 euroko espediente batean, bermea Diru-bilketa Erregelamenduak eratzeko finkatzen duen bi hilabeteko epea gaindituta gauzatu da. Erregelamendu horren 40.7 artikulua ezarriz gero, horrek emakida erabakiak indarrrik gabe uztea ekarriko luke. 305.998 euroko beste espediente bat, betegabeko izendatu zen azkenean ordainketak epean ez egiteagatik, bermea eratu gabe utzi zela.
- Izaera orokorrarekin ez da Diru-bilketa Erregelamenduan aurreikusitako informazioa jasotzen, gerorapena eman zaien sozietateen kapitala handitzeko erabakiei buruzkoa (44.5 artikulua).

### Diru-sarrerak beste administrazio batzuetan

- GFak ondare kontabilitatean Estatuan 51,4 milioi euroren zenbatekoan ingresatutako zerga-sarreraren kontzeptuko zordunak ditu erregistratuak. Zor hauetatik batzuk, 31,2 milioi eurokoak, ez ziren epe barruan Batzorde Arbitralaren aurrean errekurritu 2008ko ekitaldian, zegokion fiskalizazio txostenean jaso zen moduan. Saldo hauei eta dagokion zuzkidurari eusteko komenigarritasuna aztertu behar litzateke.
- GFak ondare kontabilitatean Nafarroako Foru Erkidegoan sartutako zerga-sarreraren kontzeptuko zordunak ditu, zergapeko bati dagozkionak guztira 20,2 mila euroko zenbatekoarekin, guztiz zuzkituak daudenak. Ekonomia Itunari buruzko 12/2002 Legeak dio Estatu Kontabilitatearen eta Foru Aldundien artean edo hauen eta beste zeinahi Autonomia Erkidegoren artean sor daitezkeen auziak konpontzeko atal eskumenduna Batzorde Arbitrala dela. Honi dagokionez, bai Euskal Autonomia Erkidegoak (EAE), bai Nafarroako Foru Erkidegoak nork bere Batzorde Arbitralak dituzte eta zehaztu gabe dago autonomia erkidego horien arteko auziak ebazteko eskumena nori dagokion.
- GFak ondare kontabilitatean Bizkaiko Foru Aldundian egindako zergen diru-sarreragatiko zordunak ditu erregistratuak, 2,5 milioi eurokoak; horiek 2008ko otsailaren 13ko Herri Dirubideen Euskal Kontseiluaren erabakiak eragiten ditu, zeinaren indarrez kitatutzat eta baliogabetutzat jotzen ziren foru administrazioen arteko hainbat erreklamazio. GFak saldo hori eta horren zuzkidura kitatu behar zituzkeen.

### III.3 KONTRATAZIOA

#### Kontratuen Erregistroa

Artekaritza eta Auditoria Zerbitzuak, GFaren Kontratuen Erregistroaren arduradun denak, ez du departamentuetatik izapidetu dituzten kontratuei buruzko informaziorik jasotzen. Kontratazio Mahaian ordezkariak dituen prozedurak soilik kontrolatzen ditu.

Honela, bada, “2009ko Kontratazioaren Oroitidazkia” mamitzerakoan, publizitaterik gabeko prozedura bidez izapidetutzat hartzen ditu kopuruaren arabera publizitaterik gabeko prozedura negoziatutzat finkatutako gehiengo mugen baitan sartzen diren kontratu guzti



haiek, inongo egiaztapenik batere egin gabe. Bestetik, ez dago kontratu luzapen eta aldaketei buruzko informaziorik; honenbestez, kontratu bakoitzaren egoera esleipena egiten duen departamentuak soilik ezagutzen du.

**GFAREN Kontratuen Erregistroak ez ditu 24/2001 Foru Dekretuan finkatutako alderdi guztiak jasotzen, horiek egiteko moldea arautzen duena. GFAk kontabilitatearekin integratutako prozedura finkatu beharko luke kontratuen erregistroa egiteko.**

### **Kontratugilearen profila**

Bai GFAn, bai Uliazpi foru erakunde autonomoan eta Enpresa Sektore Publikoaren erakundeetan, kontratugilearen profila euskarritzen duen sistema informatikoak ez du bertan jasotako informazioaren hedapen publikoa noiz hasten den modu frogagarrian egiaztatzeko bide emango duen baliabiderik.

### **Kontratazio espedienteak (ikus A.14.1 eta A.14.2)**

2009an 76,0 milioi euroan esleitutako 12 kontratazio-espediente eta aurreko urteetan esleitutako beste 11 espediente- 2009an 116,0 milioi euroko exekuzioa izan dutenak- aztertu dira. Honako alderdi hauek nabarmenduko ditugu:

- Guztira 24,1 milioi euroren zenbatekoarekin esleitutako 5 kasutan (1, 8, 9, 10 eta 12 espedienteak) ez da pleguetan kontratuaren xede den zerbitzua gauzatzeko giza eta gauzazko baliabide kopuru gutxienekoa eskatu, horiek gehitzea baloraturaz; ordea, horiek orokorrean balioztatzerara mugatu dira eta honenbestez, kaudimen-irizpidea erabili da esleipen irizpide modura, SPKLren 53.2 artikulua urratuz.
- Guztira 40,9 milioi euroren zenbatekoan esleitutako 3 kontraturen pleguek (1, 2 eta 5. espedienteak) esleipen irizpide modura hobekuntza teknikoak jasotzea barne hartzen dute, zein elementuren gainean eta zein baldintzatan baimentzen den horiek aurkeztea zehaztu gabe (SPKLren 131. artikulua).
- Kontratazio mahaiak eskatutako txosten teknikoan, zeinaren arabera 4 kontratu esleitu diren, horietatik 3, 15,9 milioi euroan eta 1 aleko prezioetan (9, 10, 11 eta 12. espedienteak), pleguetan finkatutako irizpide objektiboak azpi-irizpideetan egituratu dira eta horiei haztapen jakin bat esleitu zaie. 3 kasutan azpi-irizpideak pleguetan jasoak zeuden, ez ordea horien haztapena. Laugarren kasuan (12. espedienteak) azpi-irizpideak ez zeuden pleguetan jasoak.
- Zortzi obra kontratutan igoera nabarmenak azaleratu dira aurreikusitako exekuzio epearen eta egiazkoaren artean. Nahiz luzapenak egoki izapidetu diren, horiek zergatik gertatu diren aztertu beharko litzateke atzerapenak saihesteko, bereziki epe murrizketa kontratua esleitzeko irizpide modura baliatu den kasuetan.



### **Publizitaterik gabeko negoziatuak (ikus A.14.3)**

Guztira 304.649 euroko bost zerbitzu publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bidez kontratatu dira, eskaintzak egiteko eskatu gabe eta SPKLren 154.d) artikulua babes hartuta, eskaintzak eskatuta publizitaterik gabeko prozedura negoziatua beharrean prozedura hori erabiltzeko bide eman duten inguruabarrak behar hainbat egiaztatu gabe.

### **Administrazio kontratazioko espedienterik gabeko gastua (ikus A.14.4)**

GFAk xede bakarreko lanetan, 1,6 milioi eurokoak, ez ditu gastuak exekutatzeko prozedura negoziatu bitartez administrazio-kontratazioko derrigorrezko espedienteak izapidetu, hogeita zazpi zerbitzu, bost hornidura eta kontratu pribatu bati dagozkionak.

Gainera, 2009ko ekitaldian zehar ondasun eta zerbitzuen hainbat erosketa gauzatu zaizkie 49 hornitzaileari, guztira 4,4 milioi euroren zenbatekoan; GFAk aztertu egin behar luke horiek kontratu txikiaren prozedurari jarraiki erostea.

Ondasun eta zerbitzuen erosketaren urteko gastuak, kontzeptu homogeneousen arabera hartuta, kontratu txikietarako ezarrita dauden mugak gainditzen aditu eta urteroko gastu hori aldakorra dela aurreikusten bada, gure ustez, zer behar den, lizitazioak edo eskaintzak eskatu beharko lirateke, unitate-prezioka, bai sailka bai zerbitzu nagusika.

## **III.4 DIRU-LAGUNTZAK**

### **HUTS OROKORRAK (A.15)**

- Aztertu diren 10 espedientetan, 13,3 milioi euroko diru-laguntzak ematen dituzten 5 deialdiri dagozkienak (3, 4, 5, 6 eta 7 deialdiak) ez dago erasota onuradun izaera eskuratzeko 3/2007 Foru Arauaren 12.2 artikuluan aurreikusitako betekizunak egiaztatu direnik.
- GAOOn ez da argitaratu 16 diru-laguntza zuzenen emakida (8, 13, 14, 15, 16, 17, 18, 19, 20, 21, 22, 23, 24, 25, 26 eta 28 zk.ko espedienteak), guztira 12,2 milioi euro egin dutenak. Halaber, ez da argitaratu aztertutako deialdietako baten babesean emandako laguntzen zerrenda (10 deialdia), 5,9 milioi euroren zenbatekoan, 3/2007 Foru Arauaren 17.1 artikulua agintzen duen moduan.
- Guztira 1,7 milioi euroren zenbatekoan esleitutako 7 diru-laguntza zuzeni (16, 17, 18, 19, 20, 21 eta 24 espedienteak) eta 6 diru-laguntza izenduni (13, 14, 15, 16, 17 eta 24 espedienteak) dagozkien espedienteetan ez dago justifikaziorik ordainketa aurreratua egin aurretik bermeak eratzeko eskaerarik ez egin izateko. Gainera, 5 deialdi arautzen dituzten oinarri arauak (4, 5, 11, 19 eta 20 zk.ko deialdiak), guztira 13,5 milioi euro eman dituztenak, aurrerakinak egiteko aukera aurreikusten dute, bermeak eratzeko eskatzeko justifikaziorik erasota ez dagoela (3/2007 F Aren 16.2.j artikulua).

- Diru-laguntzen norakoaren justifikazioarekin lotuta honako akats hauek azaleratu dira:
  - Beste erakunde batzuekin elkar hartuta finantzatutako proiektuetan, zenbait kasutan ez dago erasota erakunde horietatik jasotako funtsen zenbatekoa, jatorria eta diru lagundutako jardueretarako erabili direla egiaztatu denik (3/2007 FAren 29.4 artikulua). Egoera hau 2 deialdiren babesean emandako 3 diru-laguntzetan ikusi dugu (1 eta 18 zk.ko deialdiak).
  - Zenbaitetan ez dago erasota onuradunak hiru eskaintza egiteko eskaria egin duenik diruz lagungarri diren gastuak kontratatu aurretik, 3/2007 FAren 30.3 artikuluan ezarria dagoen legez. 2009ko urtean egoera hau 2 diru-laguntza izendunetan azaleratu zaigu (13 eta 18 espedienteak), 9 diru-laguntza zuzen (8, 13, 14, 15, 16, 21, 22, 24 eta 27 zk.ko espedienteak) eta 3 deialdiren babesean emandako 3 diru-laguntza (3, 7 eta 10 deialdiak).
  - 3/2007 FAren 30.4 a) artikulua agintzen du ondasun zerrendan jasotzeko gai diren ondasunen erosketa, eraikuntza, zaharberritzea eta hobekuntza xede duen diru-laguntzaren onuradunak, ondasunak zertarako eman ziren, hartarako erabili beharko dituela ondasunak, 5 urte (erregistro publikoan erregistra daitezkeen ondasunak) eta 2 urte (gainerakoak) bitarteko epean. Aztertutako espediente batean, nagusiki ikerketarako ekipamenduak erosi eta egokitzeko diru-laguntzei dagokiena (19. deialdia), ez dago erasota alderdi hauek justifikatu direla.
  - Irabazi asmorik gabeko elkarte baten ohiko jarduera finantzatzeko emandako 928.000 euroko diru-laguntza izendun batean egiaztagiri modura aurkeztutako urteko kontuek 70.890 euroko mozkina erakusten dute.
  - Emandako 5 diru-laguntza izendunetan (1, 13, 14, 17 eta 18 zk.ko espedienteak) eta 6 diru-laguntza zuzenetan (1, 16, 17, 20, 21 eta 25 zk.ko espedienteak), hurrenez hurren, 127,7 eta 1,3 milioi euroren zenbatekoan emandakoak, ez dira izenpetutako hitzarmenen jarraipenerako batzorde mistoek egindako bileren aktak formalizatzen.

## DIRU-LAGUNTZA ZUZENAK (ikus A.15)

Diputatuen Kontseiluak onetsitako diru-laguntza zuzenek azken lau ekitaldietan izan duten bilakaera eta abenduan emandakoena, honakoa izan da:

DIPUTATUEN KONTSEILUAK ONETSITAKO DIRU-LAGUNTZA ZUZENAK	Euroak milakotan			
	2006	2007	2008	2009
Diru-laguntza zuzenen zenbatekoa guztira .....	21.663	41.816	49.981	28.177
Abenduan onetsitako diru-laguntza zuzenak .....	6.549	9.043	35.520	1.871

- Aurreko ekitaldietan diru-laguntza zuzenek izan zuten igoaldi handiaren aurrean, 2009an beherakada nabarmena egin duela ikusi da. Berebat, ekitaldiaren azken hilabetean onetsitako diru-laguntza zuzenen ehunekoak ere beherakada handia egin du.
- Diputatuen Kontseiluak 2009ko abenduaren 1ean Erabaki bidez 2009an GFak, Eusko Jaurlaritzak eta EUDELe onartutako hitzarmen baten aldaketa onetsi zuen; ordea,



erabaki hori ez dute Gipuzkoako Batzar Nagusiek baitetsi, 6/2005 Foru Arauaren 8.3 artikulua agintzen duen moduan. Hasierako hitzarmenak Eusko Jaurlaritzaren sozietate publiko bati GFak 1,9 milioi euroko emakida egitea aurreikusten zuen (28. espediente) eta aldaketaren ondoren, 875.000 eurora murriztu da.

### **DEIALDI PUBLIKO BIDEZ EMANDAKO DIRU-LAGUNTZAK (ikus A.15)**

- Aztertutako deialdietatik 5etan (4, 7, 10, 11 eta 13 zk.ko deialdiak), zeinen bidez 12,0 milioi euroren laguntzak eman ziren, oinarri-arauek diru-laguntzetarako gehiengo muga batzuk ezartzen dituzte (diruz lagungarria den gastuaren gaineko zenbatekoa edo ehunekoa); ordea, ez dute onuradun bakoitzari zenbateko eta/edo ehuneko ezberdinak izendatzeko mekanismorik bereizten.
- Bestalde, 4 deialdiren oinarri-arau erregulatuak (4, 7, 8 eta 15 zk.ko espedienteak) ez dute inongo haztapenik egiten laguntzak emateko irizpideetan. Diru-laguntza lerro hauen bitartez emandako diru-laguntzen zenbatekoa 2,8 milioi eurokoa izan da.
- 347.725 euroko diru-laguntzak esleitzen dituen txosten teknikoak (5. deialdia), argitara emandako oinarri-arauetan jaso gabe zeuden irizpideak darabiltza zenbatekoak zehazteko.
- Toki erakundeei kirol gaietan 850.000 euroan emandako diru-laguntzetan, emakidarako egindako balorazio txostenek dekretuaren oinarri arautzaileak aldarazten dituzte; horren ondorioz, zenbait kasutan diru-laguntzaren gutxiengo zenbatekoa 1.200 eurotik 2.400 eurora igo dute eta diru-lerroetatik batentzat gutxiengo bat ezarri dute (150 euro), deialdiaren oinarri-arauetan erregulatu gabe zegoena.
- 250.000 euroren zenbatekoa egiten zuen espediente batean (3. deialdia), laguntzaren ehunekoak gainditu egiten du deialdian diru-laguntza gai den ekipamendu motarako ezarritako gehiengoa. Horrek esan nahi du laguntzaren zenbatekoak 41.667 euroan gainditzen duela oinarri-arauetan jasotako aurreikuspenak zuzen aplikatu izan balira eskuratuko zatekeen zenbatekoa.
- Haurtzaro, nerabe eta gazteria gaietan toki erakundeei ematen zaizkien diru-laguntzen deialditik aztertu diren bi espedienteetan (15 zk.ko deialdia), 91.650 eurokoa, zegozkion udalekin hitzarmenak eskaerak balioztatu aurretik izenpetu ziren.

### **GIZARTE ZERBITZUETAKO HITZARMENAK: EGUNEKO ZENTROAK ETA EGOITZAK**

GFak egoitza-laguntza eta eguneko zentroetako zerbitzu emanaldia irabazi asmorik gabeko erakunde, toki erakunde eta enpresa pribatuekin izenpetutako hitzarmen bitartez finantzatzeko du, ondoko araudiaren babesean:

- 70/1993 Foru Dekretua, gizarte zerbitzuen alorrean erakunde publiko eta pribatuekin hitzarmen bidezko jardura gauzatzeko prozedura ezartzen duena.



- Eusko Jaurlaritzaren 40/1998 Dekretua, EAEko gizarte zerbitzuen baimena, erregistroa, homologazioa eta ikuskaritza arautzen dituen; honen arabera, sorospen-zerbitzuak eman nahi dituzten erakundeek dagokion homologazioa eskuratu beharko dute.
- 4/2001 Foru Dekretua, Gipuzkoako Lurralde Historikoan gizarte zerbitzuen sistema antolatzen duena.
- 12/2008 Legea, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa.

Emandako zerbitzuei ezarri beharreko tarifak urtero gaurkotzen dira Diputatuen Kontseiluaren erabaki bitartez eta 2009ko ekitaldiaren igoera % 1,9koa izan da.

2009an zehar indarrean zeuden 31 hitzarmen ebatzi dira eta berriak izenpetu, Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legea egokitzearen, bai zerbitzuen sailkapenari dagokionez, bai Lege horretan jasotako eskumenen banaketa berriari dagokionez ere. Hitzarmen berrietatik 3k tarifa % 1eko igoera osagarria barne hartzen dute (egoitza-plazen tarifaren % 80aren gainean ezartzeko), emandako zerbitzuaren langile kostuen finantzaketa doitzearren; 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera eragin ditu ondorioak. Gainera, egin beharreko jardueren gehitzea barne hartzen dute. Bada, 2009an egoitzetako egonaldietan 154 plaza gehitu dira, 113 plaza astelehenetik ostiralera bitarteko eguneko zentroetako egonaldietan eta 42 jai egun eta asteburuetakotan.

Plaza eta jarduera berriak jada GFArekin hitzarmena izenpetua zuten erakundeen artean banatu dira, plazen eskuragarritasunaren arabera.

Gure iritzira, gizarte zerbitzuetan sortzen diren plaza berriak argitara eman behar lirateke, kopuruz adierazgarriak izan daitezkeelako eta sorospen-zerbitzuak emateko homologatutako enpresek horien berri izan behar luketelako.

### III.5 LANGILEAK

Atal honetan ondotik adierazitakoak azpimarratu nahi ditugu:

- GFak 2009an erdi mailako 81 teknikari kontratatu ditu apiriletik uztaile bitarteko errenta kanpainarako. Azken urtealdiotan behin eta berriz egin diren kontratazio hauek programako bitarteko funtzionario moldearen baitan egin dira eta Lanpostuen Zerrendan ageri ez diren lanpostuak dira.
- GFaren aurrekontu plantillak ez ditu aldi baterako langileentzat gordetako lanpostuen banakako ordainsariak xehatzen, Euskal Funtzio Publikoaren Legearen 21. Artikuluak agintzen duen moduan.

### III.6 ONDAREA

Ondasun zerrenda orokorra ez du Diputatuen Kontseiluak onetsi, Ondareari buruzko 8/1996 Faren 29. artikulua aurreikusten duen moduan.

### III.7 ULIAZPI ERAKUNDE AUTONOMOA (ikus A.16)

Erakunde autonomo honi dagokionez, honako alderdi hauek azpimarratu nahi ditugu:

- Obra espediente baten proiektuaren ikuskapen-txostena ez da ageri, 483.061 euroan esleitu zena (SPKLren 109. artikulua).
- Guztira 483.061 euroan esleitutako obra espediente batean, pleguetan ez da eskatu kontratuaren xede den zerbitzua egikaritzeko behar hainbatekoa den baliabide pertsonal eta materialen gutxieneko kopuru bat, horiek gehitzea balioztatuz; ordea, horiek orokorrean balioztatzeraz mugatu dira eta horretarako, kaudimen irizpidea baliatu da esleipen irizpide modura, SPKLren 53.2 artikulua urratuz.
- Zerbitzu espediente baten administrazio klausulen pleguek, 1,7 milioi euroan esleitutakoak, hobekuntzak onartu eta balioztatzen dituzte, horiek zein elementuren gainean eta zein baldintzetan egin daitezkeen batere zehaztu gabe (SPKLren 134. artikulua).
- Zerbitzu espediente 1en lizitazio deialdiaren iragarkian izendatutako zenbatekoak, 1,7 milioi euroan esleitutakoak, ez ditu aintzat hartzen kontratuaren balizko luzamenduak (SPKLren 76. Artikulua).
- Guztira 471.413 euroko 6 kontratuan (BEZ barne), ez dira SPKLn aurreikusitako prozedura negoziatuak izapidetu. Gainera, ekitaldian zehar 8 hornitzaile elikadura eta material teknikoko hornigaiak erosi zaizkie, guztira 303.245 euroan (BEZ barne); horientzat kontratazio espedienteak egin zitezkeen aleko prezioetan edo sortetan.
- GFaren hornitzaileekin 107.216 euroko gastuak kontratatu dira (BEZ barne), Uliazpi Erakunde Autonomoaren eta GFaren arteko kontratazio sistema zentralizatuetara atxikimendurik izan gabe; horrek SPKLren 187tik 191ra bitarteko artikulua urratzen ditu.

### III.8 IZFE,SA SOZIJATE PUBLIKOA (ikus A.17)

Sozietate publiko honekin lotuta, honako alderdi hauek azpimarratu behar ditugu:

- Guztira 2,2 milioi euroan esleitutako 4 kontratutan (1, 5, 6 eta 7 zk.ko espedienteak), pleguetan ez da eskatu kontratuaren xede den zerbitzua egikaritzeko behar hainbatekoa den baliabide pertsonal eta materialen gutxieneko kopuru bat, horiek gehitzea balioztatuz; ordea, horiek orokorrean balioztatzeraz mugatu dira eta horretarako, kaudimen irizpidea baliatu da esleipen irizpide modura, SPKLren 53.2 artikulua urratuz.
- Sei kontraturen administrazio klausulen pleguek, (1, 2, 4, 5, 6 eta 7 zk.ko espedienteak), guztira 3,1 milioi euroan esleitutakoak, hobekuntzak onartu eta balioztatzen dituzte, horiek zein elementuren gainean eta zein baldintzetan egin daitezkeen batere zehaztu gabe (SPKLren 134. artikulua).
- Kontratazio mahaiak eskatutako txosten teknikoan, zeinaren arabera 1,4 milioi euroan 3 kontratu esleitu diren (1, 2 eta 4 zk.ko espedienteak), pleguetan ezarritako irizpide objektiboak hiru azpi-irizpidetan egituratu dira eta horiei haztapan bat eman zaie. Azpi-irizpide hauek aurreikusi gabe zeuden pleguetan.



### III.9 BIDEGI, SA SOZIETATE PUBLIKOA (ikus A.18)

Sozietate publiko honekin lotuta, honako alderdi hauek azpimarratu behar ditugu:

- Guztira 12,8 milioi euroan esleitutako 5 espedientetan (1, 4, 5, 6 eta 7 zk.ko espedienteak), pleguetan ez da eskatu kontratuaren xede den zerbitzua egikaritzeko behar hainbatekoa den baliabide pertsonal eta materialen gutxieneko kopuru bat, horiek gehitzea balioztatuz; ordea, horiek orokorrean balioztatzer mugatu dira eta horretarako, kaudimen irizpidea baliatu da esleipen irizpide modura, SPKLren 53.2 artikulua urratuz.
- Bost kontraturen administrazio klausulen pleguek, (1, 4, 5, 6 eta 7 zk.ko espedienteak), guztira 12,8 milioi euroan esleitutakoak, hobekuntzak onartu eta balioztatzen dituzte, horiek zein elementuren gainean eta zein baldintzetan egin daitezkeen batere zehaztu gabe (SPKLren 134. artikulua).
- Aztertutako kontratuen esleipenak oinarri dituzten txosten teknikoak (7 kontratu, guztira 14,1 milioi euroren zenbatekoan esleitutakoak), haztapen jakin bat ematen diote pleguetan ezarritako azpi-irizpideei. Haztapena ez zegoen pleguetan jaso.

### III.10 ETORLUR, GIPIZKOAKO LURRA, SA SOZIETATE PUBLIKOA (ikus A.19)

Sozietate publiko honekin lotuta, honako alderdi hauek azpimarratu behar ditugu:

- Sozietateak langileak hautatzeko prozesua berariaz gaitutako enpresa batekin kontratatzen du eta Sozietateari prozesuaren azken txosten bat aurkezten dio, izangaien azken zerrenda bat proposatzen diola. Aipatutako azken txosten horrekin batera, izangai guztien balorazioa justifikatu edo euskarrituko duen dokumentaziorik ez da aurkeztu eta honebestez, ezin egiaztatu izan dugu aldi baterako lau langileren kontratazioan berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak gorde direnik.
- Guztira 0,8 euroan esleitutako obra espediente batean, pleguetan ez da eskatu kontratuaren xede den zerbitzua egikaritzeko behar hainbatekoa den baliabide pertsonal eta materialen gutxieneko kopuru bat, horiek gehitzea balioztatuz; ordea, horiek orokorrean balioztatzer mugatu dira eta horretarako, kaudimen irizpidea baliatu da esleipen irizpide modura, SPKLren 53.2 artikulua urratuz. Gainera, prezioa eta epea irizpideak balio-neurtzeko erabilitako formulek zigortu egiten dituzte eskaintza merkeenak eta batez bestetik gorako epe murrizketak.
- Sozietateak zuzenean bi ibilgailu eta hainbat tresneria erosi du 86.803 euroko zenbatekoan; ordea, Kontrataziorako Barne Aginpideei jarraiki, kontratuak publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bitartez esleitu behar zituzkeen.



## IV. FINANTZA ANALISIA

### IV.1 GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN KONTUAK

Hona hemen Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kontuetatik eratorri diren finantza magnitude nagusiak

	Euroak milakotan				
	2006	2007	2008	2009	Bariazioa 2009/2008
<b>Sarrera arruntak</b>	<b>4.035.628</b>	<b>4.455.447</b>	<b>4.258.680</b>	<b>3.519.268</b>	<b>(17%)</b>
Zerga itunduak .....	3.977.652	4.367.558	4.128.876	3.427.540	(17%)
Zerga ez itunduak.....	23.118	22.668	37.365	21.217	(43%)
Transferentzia arruntak.....	25.932	54.264	82.055	69.115	(16%)
Ondare sarrerak.....	8.926	10.957	10.384	1.396	(87%)
<b>Erakundearteko konpromisoak</b>	<b>3.348.304</b>	<b>3.710.613</b>	<b>3.508.978</b>	<b>2.894.043</b>	<b>(18%)</b>
Estatuari kupoa .....	451.070	508.126	528.887	248.132	(53%)
Eusko Jaurlaritzari ekarpena.....	2.520.486	2.778.378	2.575.658	2.300.016	(11%)
Udalei ekarpena .....	376.748	424.109	404.433	345.895	(14%)
<b>Sarrera arrunt garbiak</b>	<b>687.324</b>	<b>744.834</b>	<b>749.702</b>	<b>625.225</b>	<b>(17%)</b>
<b>Gastu arruntak</b>	<b>(373.418)</b>	<b>(389.397)</b>	<b>(457.840)</b>	<b>(548.576)</b>	<b>20%</b>
Langileria-gastuak .....	(88.192)	(91.149)	(96.776)	(102.410)	6%
Ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketak .....	(80.858)	(87.176)	(95.840)	(112.820)	18%
Finantza gastuak .....	(6.703)	(1.407)	(5.851)	(4.536)	(22%)
Transferentzia arruntak.....	(197.665)	(209.665)	(259.373)	(328.810)	27%
<b>ERAGIKETA ARRUNTEN EMAITZA (1)</b>	<b>313.906</b>	<b>355.437</b>	<b>291.862</b>	<b>76.649</b>	<b>(74%)</b>
<b>KAPITALEZKO ERAGIKETAK (2)</b>	<b>(280.375)</b>	<b>(307.085)</b>	<b>(276.044)</b>	<b>(369.866)</b>	<b>34%</b>
Egiazko inbertsioen besterentzea.....	1.464	2.333	411	261	(37%)
Kapitalezko transferentziek eragindako sarrerak ..	47.118	35.762	55.171	46.196	(16%)
Inbertsio errealetan gastuak.....	(252.681)	(253.341)	(249.631)	(292.503)	17%
Kapitalezko transferentziek eragindako gastuak ..	(76.276)	(91.839)	(81.995)	(123.820)	51%
<b>FINANTZAKETA ERAGIKETEN SALDOA (3)</b>	<b>(50.803)</b>	<b>6.716</b>	<b>(18.621)</b>	<b>(1.230)</b>	<b>(93%)</b>
Finantza aktiboaren bariazio garbia .....	(2.528)	11.339	(65.173)	(74.142)	14%
Finantza pasiboaren bariazio garbia.....	(48.275)	(4.623)	46.552	72.912	57%
<b>ZALANTZAZKO KOBRAGARRITASUNEN ESKUBIDEEN ZUZKIDURA (4)</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>(53.911)</b>	<b>-</b>	
<b>EKITALDIAREN EMAITZA (1+2+3+4)</b>	<b>(17.272)</b>	<b>55.068</b>	<b>(56.714)</b>	<b>(294.447)</b>	
<b>EKITALDI ITXIEN EMAITZA (5)</b>	<b>(5)</b>	<b>(69)</b>	<b>62</b>	<b>(233)</b>	
<b>AURREKONTUAREN EMAITZA (1+2+3+4+5)</b>	<b>(17.277)</b>	<b>54.999</b>	<b>(56.652)</b>	<b>(294.680)</b>	



## EMAITZA ARRUNTA

- Emaidza arrunta 2009ko ekitaldian % 73,7 murriztu da, sarrera arrunt propioek % 16,6 behera egin izanaren ondorioz, gastu arrunten % 19,8ko igoaldiaren aldean.
- Erakunde konpromisoetatik garbi dauden sarrera arrunten beherakada ekonomia krisiaren testuinguruan kokatu behar da, izan ere, zerga zuzen eta zeharkako sarreretan % 17,2ko beheraldia eragin du eta aldi berean, erakunde konpromisoek ere % 17,5 egin dute behera. Beherakada honen aldean, ordea, gastu arruntei ez zaie bere horretan eutsi eta aurreko ekitaldietakoa baino ehuneko handiagoan igo dira, ondoko taulan ikus daitekeen moduan:

	Bariazio ehunekoa		
	2007/2006	2008/2007	2009/2008
Sarrera arrunten bariazioa erak. konpromisoetatik garbi .....	8,4%	0,7%	(16,6%)
Gastu arrunten bariazioa .....	4,3%	17,6%	19,8%

Ondoren, azken lau ekitaldietan itunpeko zergen dirubilketak izan duen bilakaeraren analisisia egingo dugu, GFAREN finantzaketa iturri nagusi dena:

	Euroak milakotan			
	2006	2007	2008	2009
<b>DIRUBILKETA</b>	<b>3.977.652</b>	<b>4.367.558</b>	<b>4.128.876</b>	<b>3.427.540</b>
Estatuari kupoa .....	451.070	508.126	528.887	248.132
Dirubilketaren g/%	% 11,3	% 11,6	% 12,8	% 7,2
Eusko Jaurlaritzari ekarpena .....	2.520.486	2.778.378	2.575.658	2.300.016
Dirubilketaren g/%	% 63,4	% 63,6	% 62,4	% 67,1
Udalen partaidetza tributuetan.....	376.748	424.109	404.433	345.895
Dirubilketaren g/%	% 9,5	% 9,7	% 9,8	% 10,1
<b>ERAKUNDE KONPROMISOAK</b>	<b>3.348.304</b>	<b>3.710.613</b>	<b>3.508.978</b>	<b>2.894.043</b>
Dirubilketaren g/%	% 84,2	% 84,9	% 85,0	% 84,4

- Gastu arruntak nabarmen egiten du gora Transferentzia eta Diru-laguntza arrunten kapituluaren. Kapitulu honek 2006 eta 2007ko ekitaldietan urteko % 6,1 eta % 7,7 bitarteko igoera izan zuen; 2008an % 23,7ko igoera izan du eta % 26,8koa 2009an (erakunde-konpromisoak kenduta). Azken igoaldi honetatik (69,4 milioi euro), % 59,5a (41,3 milioi euro) Gizarte Politikaren Sailari dagokio eta bertan, Aldian behingo Prestazio Ekonomikoen Programa nagusitzen da (Sarreraren Berme Errenta eta Mendekotasunari Laguntzak, batik bat) 41,5 milioi euro egitetik 87,5 milioi euro egitera aldatu dena.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## KAPITAL ERAGIKETAK

Egiazko inbertsio eta kapitalezko transferentzietan gastuen exekuzioa % 25,5 gehitu da 2009an eta kapital transferentziek eragindako sarrerek, berriz, % 16,3 egin dute behera. Honenbestez, % 34 gehitu da kapitalezko eragiketek eragindako defizita. Igoera honi eragiketa arruntengatik emaitzak izan duen beheraldi handia lotzen badiogu, lehenengo aldiz azken lau urteetan, eragiketa arruntengatik emaitza (76,6 milioi euro) kapitalezko eragiketak finantzatzeko behar hainbatekoa ez izatea eragin du (369,9 milioi euro).

## FINANTZA ERAGIKETEN SALDOA

Hona hemen eragiketa adierazgarrienak:

- 82,0 milioi euroko mailegu bat izenpetzea, ekitaldian erabili dena.
- Udalei Udal Finantzaketarako Foru Fondoko likidazioak ordaintzeko emandako gerorapenei dagokienez, GFAk 27,2 milioi euroko diru-sarrera erregistratu du (2008ko likidazioa) eta 99,1 milioi euroko gastua (2009ko likidazioa) Finantza aktiboen bariazioko dagozkien kapituluetan.

## DIRUZAINZAKO GELDIKINA

Diruzaintza Geldikin Erabilgarriaren bilakaera eta GFAk Kontsolidatutako Diruzaintza Geldikinean erabili gabeko kreditu eragiketekin barne hartutako erabili gabeko maileguak, honako hau da:

	Euroak milakotan			
	2006	2007	2008	2009
Diruzaintza geldikin erabilgarria .....	113.671	189.132	310.107	(142.151)
Erabili gabeko maileguak, Kontsolidatutako Diruz. Geld. jasoak .....	225.450	204.950	27.200	184.950
Kontsolid. Diruzaintza Geldikina., erabili gabeko kreditu eragiketekin .....	339.121	394.082	337.307	42.799

Diruzaintza Geldikin Erabilgarri honek hain gogor behera egitearen arrazoia inbertsio eragiketetan 369,9 milioi euroko saldo negatiboan eta erabili gabeko zorpetze saldoaren igoera handian datza, aurreko ekitaldi itxieran 27,2 milioi euro egitetik, 2009an 184,9 milioi euro egitera aldatzen dena. Beheraldi hau emaitza arruntak izan duen bilakaera negatiboari ere lotzen zaio.

2010eko urtean ez da inongo krediturik txertatu. 2009ko ekitaldi itxieran 67,2 milioi euroko kredituak hitzartutako fasean zeuden.

## ZORPETZEA

Nahiz erabilitako zorpetzeak behera egin duen 84,8 milioi euroan, eragiketa arruntentzako kontzeptuko emaitzak izan duen beherakada handiak izugarri hondatzen du bi magnitudeen arteko erlazioa erakusten duen ratioa.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

	Euroak milakotan			
	2006	2007	2008	2009
Zorpetzea: Erabilitako maileguak.....	44.493	60.370	284.672	199.834
Eragiketa arrunten emaitza .....	313.906	355.437	(*) 237.951	76.649
Zorpetzea / Eragiketa arrunten emaitza.....	0,14	0,17	1,20	2,61

(\*) Kendu egin dira salbuespen, hobari eta kenkari fiskalen itzulketak eragindako sarrerak, guztiz zuzkituak zeudenak.

## KONPROMISO KREDITUAK

Hona hemen azken lau ekitaldietan konpromiso kredituen azken aurrekontuak izan duen bilakaera:

	Euroak milakotan			
	2006	2007	2008	2009
Konpromiso kredituen azken aurrekontua .....	362.889	420.821	716.255	621.017

## IV.2 ERAKUNDE AUTONOMOIA ETA SOZINETATE PUBLIKOAK

Uliazpi Erakunde Autonomoa eta Izfe, SA sozietate publikoa ia osorik GFak eskualdatzen dizkien funtsen bidez hornitzen dira eta honenbestez, GFaren finantza-analisiak iada besarkatzen ditu haien kontuak ere.

Bidegi, SA sozietatea publikoak ez du GFatik finantzaketarik jasotzen, izan ere, baliabideak sortzen ditu eta zorpetze nahiz inbertsio bolumen handia du, ondoko taulan ikus daitekeen moduan:

BIDEGI, SA	Euroak milakotan			
	2006	2007	2008	2009
Ibilgetu materialaren igoera .....	89.756	239.688	315.459	247.419
Epe luzeko zorpetzearen igoera .....	-	123.000	177.000	200.000
Negozio zifraren zenbateko garbia.....	64.953	68.306	69.277	74.231
Ekitaldiaren emaitza.....	51.076	75.100	50.193	39.371

Etorlur, SA sozietate publikoa finantzatzen da batik bat akziodun bakar duen GFak gauzatzen dituen kapital zabalkuntza bidez (1,9 milioi euroko diru-ekarpena 2009ko ekitaldian). Izakinen igoera sozietatearen eraikuntza jardueraren igoerarekin lotua dago (Abian dauden sustapenak idazpuruak 20,4 milioi euro egin du gora).



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

ETORLUR, SA	Euroak milakotan			
	2006	2007	2008	2009
Izakinen igoera .....	7.563	5.876	10.948	19.082
Funts propioen igoera .....	5.395	358	12.802	2.773
Ekitaldiaren emaitza .....	(83)	(301)	(483)	87

### IV.3 ONDORIOA

2009ko ekitaldian sarrera arrunten beheraldiak, aurreko ekitaldietakoak baino erritmo biziagoarekin gastu arruntaren igoerarekin batera, emaitza arrunta kapitalezko eragiketen exekuzio garbia finantzatzeko behar hainbatekoa izatea eragotzi du.

2010eko ekitaldiko aurrekontuek zorpetzeak 509 milioi euroko muga izatea aurreikusten dute (2009ko ekitaldi itxieran erabilitakoa 199,8 milioi eurokoa da). Bidegi, SA foru sozietate publikoari dagokionez, 813 milioi euroko muga aurreikusten du (2009ko ekitaldi itxieran zorpetzea 500 milioi eurokoa zen).

### IV.4 AURREKONTUAREN EGONKORTASUNA

Aurrekontu Egonkortasunari buruzko abenduaren 12ko 18/2001 Lege Orokorrak 5. artikuluan xedatzen du “Lege honen ezarpen eremuan dauden subjektuen Aurrekontuek eta horien likidazioek informazio behar adinako eta egokia jaso beharko dutela aurrekontu egonkortasunaren printzipioari egokitzen zaiela egiaztatu ahal izateko; baita, aurrekontu egonkortasunaren helburua bete eta kontabilitate nazionalari buruzko gaietan arau komunitarioek ezarritako obligazioak bete ahal izateko ere”. Berebat, bertako Xedapen Gehigarri Laugarrenean adierazten du “Lege honetan xedatutakoa Euskal Autonomia Erkidegoari ezartzea, Ekonomia Itunaren Legeak erabakitakoa kaltetu gabe egingo da”.

Foru administrazioek ez dute aurrekontu-egonkortasunerako helburuak bete izanari buruzko txostena jaulkitzeko legezko obligaziorik, Aurrekontu Orokorrak, kreditu osagarriak edo Kontu Orokorra onesteko aurkezten den dokumentazioari erantsi beharreko dena.

Nolanahi den ere, administrazio autonomikoek bezalaxe eta Ekonomia Itunaren 48.1 artikulua hiruugarren printzipioan erabakitakoari jarraiki, foru sektore publikoak egonkortasun printzipio eta helburuak bete behar ditu eta kasua balitz, Gipuzkoako Batzar Nagusiei eman horiek bete izanaren berri.



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## V. URTEKO KONTUAK

### V.1 FORU ALDUNDIAREN KONTUAK

#### A. 2009-KO EKITALDIAREN AURREKONTU LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

SARRERAK	Eransk.	Aurrekontua			Eskubide kitat.	Kobr.	Kobr. gabea
		Hasierak.	Aldak.	B.-betik.			
1.-Zerga zuzenak .....	A7	1.992.160	-	1.992.160	1.641.350	1.641.350	-
2.-Zeharkako zergak .....	A7	2.312.453	-	2.312.453	1.753.711	1.753.711	-
3.- Tasak eta bestelako sarrerak .....	A7	46.353	2.304	48.657	53.696	53.343	353
4.-Transferen. eta dirul. arruntak....	A8	204.067	18.708	222.775	261.260	233.635	27.625
5.-Ondare sarrerak.....	A12	1.000	-	1.000	1.396	1.232	164
6.- Inbertsio errealen besterentzea .	A6	88	-	88	261	261	-
7.-Kapital dirulag. eta transf.....	A8	37.233	8.097	45.330	46.196	39.633	6.563
8.- Aktibo finantzarioen bariazioa ..	A9	56.076	134.992	191.068	30.331	30.027	304
9.- Finantza pasiboan bariazioa .....	A10	73.088	8.949	82.037	82.000	82.000	-
<b>DIRU-SARRERAK GUZTIRA</b>		<b>4.722.518</b>	<b>173.050</b>	<b>4.895.568</b>	<b>3.870.201</b>	<b>3.835.192</b>	<b>35.009</b>
			A2				A8

GASTUAK	Eransk.	Aurrekontua			Obligazio aitortuak	Ordain.	Ordain. gabea
		Hasierak	Aldak.	B.-betik.			
1.-Langileria-gastuak.....	A3	106.500	(1.285)	105.215	102.410	102.397	13
2.- Ondas. arr. eta zerbitz. erosk. ....	A4	105.960	14.754	120.714	112.820	99.990	12.830
3.-Finantza gastuak.....	A10	13.150	-	13.150	4.536	4.011	525
4.-Transferen. eta dirul. arruntak....	A5	4.107.236	(58.386)	4.048.850	3.414.998	3.164.832	250.166
6.- Inbertsio errealak .....	A6	265.666	79.975	345.641	292.503	233.328	59.175
7.-Kapital dirulag. eta transf.....	A5	110.245	35.826	146.071	123.820	89.904	33.916
8.- Aktibo finantzarioen bariazioa ..	A9	4.673	102.166	106.839	104.473	104.473	-
9.- Finantza pasiboan bariazioa .....	A10	9.088	-	9.088	9.088	9.088	-
<b>GASTUAK GUZTIRA</b>		<b>4.722.518</b>	<b>173.050</b>	<b>4.895.568</b>	<b>4.164.648</b>	<b>3.808.023</b>	<b>356.625</b>
			A2				

#### B. AURREKONTU ITXIEN ALDAKETA

Euroak milakotan

	Hasierako zorra	(Kobran.)/ Baliog. Ordaink.		Azken zorra
Zordunak .....	105.498	(408)	(60.082)	45.008
Hartzekodunak.....	(100.045)	175	99.870	-
<b>AURREKONTU ITXIAK</b>		<b>(233)</b>		



Herri - Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

### C. KONPROMISO KREDITUEN EGOERA

Euroak milakotan

Kapitulua	Eranskina	Hasierako kredituak	Aldaket. A2	Kredituak itxieran	Baimendut.	Hitzartutakoak
2.- Ondasun arrunt eta zerb. erosketa.....	A4	3.128	6.690	9.818	8.255	6.467
4.- Transferentzia arruntak.....	A5	19.423	7.743	27.166	18.655	18.426
6.- Inbertsio errealen besterentzea .....	A6	371.501	935	372.436	105.898	101.066
7.- Kapitalezko transferentziak.....	A5	187.419	22.428	209.847	188.063	177.860
8.- Finantza aktiboen aldak.....	A9	1.750	-	1.750	-	-
<b>GEROKO GASTUAK GUZTIRA</b>		<b>583.221</b>	<b>37.796</b>	<b>621.017</b>	<b>320.871</b>	<b>303.819</b>
				2010 urtea .....		168.733
				2011 urtea .....		69.905
				2012 urtea eta hurr.....		65.181

### D. AURREKONTU EMAITZA ETA DIRUZAINZTA GELDIKINA

Euroak milakotan

Aitortutako eskubideak.....	3.870.201
-Obligazio aitortuak .....	(4.164.648)
<b>EKITALDIAREN EMAITZA (1)</b>	<b>(294.447)</b>
Eskubide kitatuak balio gabetzea .....	(408)
Obligazio aitortuak balio gabetzea .....	175
<b>EKITALDI ITXIEN EMAITZA (2)</b>	<b>(233)</b>
<b>AURREKONTUAREN EMAITZA 1+2</b>	<b>(294.680)</b>
<b>08/12/31-N DIRUZAINZTA GELDIKIN KONSOLIDATUA</b>	<b>337.307</b>
	42.627
Aurrekontuan jaso gabeko sarreraren itzuleragatiko hartzekodunen bariazioa	172
<b>09/12/31-N DIRUZAINZTA GELDIKIN KONSOLIDATUA</b>	<b>42.799</b>
<b>ERABILI GABEKO KREDITU ERAGIKETEKIN</b>	<b>42.799</b>

### E. DIRUZAINZTA GELDIKINA

Euroak milakotan

Diruzaintza eta aldi bateko finantza inbertsioak .....	A12	71.515
Aurrekontuko zordunak.....		80.017
Zalantzasako kobragarrit. eskubideen zuzkidura .....	A7	(53.911)
Aurrekontuz kanpoko zordunak .....	A11	153.737
Aurrekontuko hartzekodunak .....		(356.625)
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak .....	A11	(36.884)
<b>DIRUZAINZTA GELDIKIN ERABILGARRIA 09/12/31-N</b> .....		<b>(142.151)</b>
Kreditu lerroetan gauzatutako aurrekontu-finantzaketa (Erabili gabeko saldoa).....	A10	184.950
<b>2009/12/31-N DIRUZAINZTA GELDIKIN KONSOLIDATUA</b>		<b>42.799</b>
<b>ERABILI GABEKO KREDITU ERAGIKETEKIN</b>		<b>42.799</b>





Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

F. EGOERAREN BALANTZEAK 2009 eta 2008ko abenduaren 31n

Euroak milakotan

AKTIBOA	Eranskina	2009	2008	PASIBOA	Eranskina	2009	2008
<b>IBILGETUA</b>		<b>1.200.196</b>	<b>1.064.223</b>	<b>BEREZKO FONDOAK</b>		<b>904.598</b>	<b>1.123.531</b>
Erabilera orokorrekoa.....	A6	221.131	214.580	Ondarea .....	A6	3.039.879	2.921.864
Ezmateriala .....	A6	148.942	126.964	Erabilera orokorrerako ondarea...	A6	(1.237.336)	(1.107.105)
Amort. ezmateriala .....		(108.024)	(96.038)	Egoera berezi. ondarea .....	A6	(809.113)	(809.243)
Materiala eta abian .....	A6	938.752	876.259	Ekitaldiko ondare emaitza .....	A13	(88.832)	118.015
Amort. materiala.....		(206.620)	(189.415)				
Ibilgetu finantzarioa .....	A9	206.015	131.873				
<b>ZORDUNAK</b>		<b>178.714</b>	<b>260.370</b>	<b>HORNIDURAK</b>		<b>111.098</b>	<b>54.562</b>
Aurrekontuko zordunak.....		80.017	105.497	P. Erakunde konpromisoak.....	A7	111.098	54.562
Geroratu gab. zerga zord.....	A7	552.412	421.607				
D. Geroraturako zerga zord.	A7	92.156	61.930	<b>EPE LUZEKO ZORRA</b>		<b>177.057</b>	<b>280.813</b>
Aurrek. kanp. bestel. zord....	A11	34	126.843	Jasotako maileguak.....	A10	177.057	280.813
Kaudimengabez. zuzkidura..	A7	(547.423)	(456.971)				
Erakunde publ., eskud. k/k...	A11	1.518	1.464				
<b>FINANTZA-KONTUAK</b>		<b>256.445</b>	<b>278.281</b>	<b>HARTZEKODUNAK EPE LABURRERA</b>		<b>442.602</b>	<b>143.968</b>
Epe labur. emandako kredi.		27.168	27.220	Aurrekontuko hartzekodunak .....		356.625	100.045
Bankukoak ez diren b. kont.	A11	157.762	88.378	Sarrerak itzultzeag. hartzek.....	A7	17.639	15.957
Diruzaintza .....	A12	71.515	162.683	Aurrek. kanpoko beste hartzek...	A11	8.560	7.163
				Epe laburreko zorra.....	A10	45.865	7.325
				Beste zor batzuk .....	A11	2.763	797
				Bestel. erak. publikoen baliab.....	A11	5.624	5.916
				Aplikatzeko dauden sarrerak.....	A11	5.526	6.765
<b>AKTIBOA GUZTIRA</b>		<b>1.635.355</b>	<b>1.602.874</b>	<b>PASIBOA GUZTIRA</b>		<b>1.635.355</b>	<b>1.602.874</b>

G. 2009 eta 2008ko ekitaldietako GALDU-IRABAZIEN KONTUAK

Euroak milakotan

GASTUAK	2009	2008	SARRERAK	2009	2008
Langileria-gastuak.....	103.784	98.291	Zergak .....	3.542.463	4.192.264
Kanpoko zerbitzuak .....	172.592	147.270	Salmentak eta zerbitzuen emakida.	25.978	25.854
Tributuak .....	448	494	Jasotako tran. eta dirul. ....	307.606	178.730
Emandako trans. eta dirulag. ....	3.547.341	3.901.512	Kudeaket. sarrera osagarriak.....	53.472	59.170
Ibilgetua amortizatzeke zuzk.....	29.716	31.002	Interesak.....	1.362	10.378
Kaud.gabez. zuzk.-erak.kon. ald.	149.436	71.268	Aurreko ekitaldietako mozkinak.....	88	31
Finantza gastuak.....	4.536	5.851	Ibilgetuaren mozkinak .....	1	158
Aurreko ekitaldietako galerak .....	11.938	92.915	Aparteko irabaziak.....	-	44
Ibilgetuaren galerak .....	11	11			
<b>GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>4.019.802</b>	<b>4.348.614</b>	<b>SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>3.930.970</b>	<b>4.466.629</b>
			Ekitaldiaren emaitza	(88.832)	118.015



## V.2 ULIAZPI ERAKUNDE AUTONOMOAREN KONTUAK

### A. 2009-KO EKITALDIAREN AURREKONTU LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

SARRERAK	Aurrekontua			Eskubide kitat.	Kobr.	Kobr. gabea
	Hasier.	Aldak.	B.-betik.			
3.-Tasak eta bestelako sarrerak .....	1.609	-	1.609	1.576	1.435	141
4.- Transferentzia arruntak .....	14.577	-	14.577	13.377	13.377	-
5.-Ondare sarrerak .....	150	-	150	50	46	4
7.- Kapital transferentziak .....	2.000	-	2.000	973	973	-
8.- Aktibo finantzarioen bariazioa .....	175	940	1.115	44	44	-
<b>DIRU-SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>18.511</b>	<b>940</b>	<b>19.451</b>	<b>16.020</b>	<b>15.875</b>	<b>145</b>

GASTUAK	Aurrekontua			Obligazio Aitortuak	Ordain.	Ordain. gabea
	Hasier.	Aldak.	B.-betik.			
1.-Langileria-gastuak .....	12.062	-	12.062	11.207	10.414	793
2.- Ondasun arr. eta zerbitzuen erosketak .....	4.274	-	4.274	4.273	3.398	875
6.- Inbertsio errealak .....	2.000	940	2.940	1.997	815	1.182
8.- Aktibo finantzarioen bariazioa .....	175	-	175	44	44	-
<b>GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>18.511</b>	<b>940</b>	<b>19.451</b>	<b>17.521</b>	<b>14.671</b>	<b>2.850</b>

### B. AURREKONTU ITXIEN ALDAKETA

Euroak milakotan

	Hasierako	Baliog.	(Kobran.)/ Ordaink.	Azken
	zorra			zorra
Zordunak .....	309	(16)	(219)	74
Hartzekodunak .....	(1.991)	-	1.990	(1)
<b>AURREKONTU ITXIAK</b>		<b>(16)</b>		

### C. AURREKONTU EMAITZA ETA DIRUZAINZA GELDIKINA

Euroak milakotan

Aitortutako eskubideak .....	16.020
-Obligazio aitortuak .....	(17.521)
<b>EKITALDIAREN EMAITZA (1)</b>	<b>(1.501)</b>
Eskubide kitatuak baliogabetzea .....	(16)
Obligazio aitortuak baliogabetzea .....	-
<b>EKITALDI ITXIEN EMAITZA (2)</b>	<b>(16)</b>
Doiketa finantzarioa (3) .....	2
<b>AURREKONTUAREN EMAITZA (1+2+3)</b>	<b>(1.515)</b>
08/12/31-N DIRUZAINZA GELDIKIN KONTSOLIDATUA	2.706
09/12/31-N DIRUZAINZA GELDIKIN KONTSOLIDATUA	1.191



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

D. DIRUZAINZA GELDIKINA		Euroak milakotan
Diruzaintza eta aldi bateko finantza inbertsioak .....		3.854
Aurrekontuko zordunak.....		219
Zalantzazko kobragarrit. eskubideen zuzkidura .....		(53)
Aurrekontuz kanpoko zordunak .....		40
Aurrekontuko hartzekodunak .....		(2.851)
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak .....		(18)
<b>DIRUZAINZA GELDIKIN ERABILGARRIA 2009/12/31-N</b>		<b>1.191</b>

E. EGOERAREN BALANTZEA 2009 eta 2008ko abenduaren 31n			Euroak milakotan		
AKTIBOA	2009	2008	PASIBOA	2009	2008
Ibilgetua .....	13.148	11.732	Berezko funtsak .....	14.374	14.470
Zordunak .....	294	368	Hartzekodunak epe laburrera.....	2.869	2.012
Kaudimengabeziatarako zuzkidura	(53)	(53)			
Finantza kontuak .....	3.854	4.435			
<b>AKTIBOA GUZTIRA</b>	<b>17.243</b>	<b>16.482</b>	<b>PASIBOA GUZTIRA</b>	<b>17.243</b>	<b>16.482</b>

F. 2009 eta 2008ko ekitaldietako GALDU-IRABAZIEN KONTUAK			Euroak milakotan		
GASTUAK	2009	2008	SARRERAK	2009	2008
Langileria-gastuak .....	11.206	10.256	Negozio zifra eta best. esp. sarr. ....	1.576	1.494
Amortizaziorako zuzkidura.....	578	439	Transferentzia arruntak .....	13.377	12.775
Kaudimengab. horniduren aldakuntz.	13	8	Sarrera finantzarioak.....	49	192
Bestelako ustiapen gastuak .....	4.273	3.701	Kapitalezko transferentziak.....	972	920
Kapital diru-laguntzak.....	-	1.117			
<b>GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>16.070</b>	<b>15.521</b>	<b>SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>15.974</b>	<b>15.381</b>
			<b>Ekitaldiaren emaitza</b>	<b>(96)</b>	<b>(140)</b>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

### V.3 SOZETATE PUBLIKOEN KONTUAK

Egoeraren BalantzeaK 2009 eta 2008ko abenduaren 31n Euroak milakotan

	Izfe, SA		Bidegi, SA		Etorlur, SA	
	2009	2008	2009	2008	2009	2008
<b>AKTIBO EZ ARRUNTA</b>	<b>8.476</b>	<b>7.363</b>	<b>1.079.309</b>	<b>843.322</b>	<b>1.088</b>	<b>1.028</b>
Ibilgetu ukiezina.....	1.629	709	148.523	159.962	40	6
Ibilgetu materiala.....	6.662	6.350	930.623	683.204	1.048	1.022
Taldeko enpresetan partaidetzak.....	110	199	-	-	-	-
Finantza inbertsioak epe luzera.....	60	104	163	156	-	-
Geroratutako zerga kontzeptuko aktiboak.....	15	1	-	-	-	-
<b>AKTIBO ARRUNTA</b>	<b>10.504</b>	<b>7.325</b>	<b>66.955</b>	<b>67.056</b>	<b>51.273</b>	<b>26.894</b>
Izakinak.....	19	20	-	-	44.232	25.150
Merkataritzako zordunak eta kobratzeko bestel. knt..	8.488	6.257	52.216	48.484	3.572	358
Finantza inbertsioak epe laburrera.....	2	2	1.564	6.096	-	-
Aldizkakotzeak epe laburrera.....	201	294	-	-	6	3
Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak.....	1.794	752	13.175	12.476	3.463	1.383
<b>AKTIBOA GUZTIRA</b>	<b>18.980</b>	<b>14.688</b>	<b>1.146.264</b>	<b>910.378</b>	<b>52.361</b>	<b>27.922</b>
<b>ONDARE GARBIA</b>	<b>8.374</b>	<b>7.509</b>	<b>480.512</b>	<b>452.565</b>	<b>26.918</b>	<b>24.104</b>
Berezko funtsak.....	2.294	2.228	332.007	292.636	26.877	24.104
Diru-laguntzak, dohaintzak eta jasotako legatuak.....	6.080	5.281	148.505	159.929	41	-
<b>PASIBO EZ ARRUNTA</b>	<b>2.321</b>	<b>1.976</b>	<b>500.000</b>	<b>300.000</b>	<b>-</b>	<b>-</b>
Epe luzeko zorrak.....	-	-	500.000	300.000	-	-
Geroratutako zerga kontzeptuko pasiboak.....	2.321	1.976	-	-	-	-
<b>PASIBO ARRUNTA</b>	<b>8.285</b>	<b>5.203</b>	<b>165.752</b>	<b>157.817</b>	<b>25.443</b>	<b>3.818</b>
Epe laburreko zorrak.....	2.720	924	48.314	1.624	2.856	15
Merkataritzako hartzek. eta ordaintzeko bstel. kntu...	5.524	4.270	117.438	156.189	22.587	3.803
Aldizkakotzeak epe laburrera.....	41	9	-	-	-	-
<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA</b>	<b>18.980</b>	<b>14.688</b>	<b>1.146.264</b>	<b>910.378</b>	<b>52.361</b>	<b>27.922</b>

2009 eta 2008ko Galdu-Irabazien kontuak

Euroak milakotan

	zfe, SA		Bidegi, SA		Etorlur, SA	
	2009	2008	2009	2008	2009	2008
Negozio zifraren zenbateko garbia.....	23.159	18.862	74.231	69.277	11.409	3.956
Izakinen aldakuntza.....	-	-	-	-	21.272	3.571
Hornidurak.....	(58)	(89)	-	-	(30.857)	(7.455)
Bestelako ustiaketa sarrerak.....	944	574	11.038	10.498	112	98
Langileria-gastuak.....	(8.168)	(7.947)	(1.141)	(1.143)	(631)	(401)
Bestelako ustiapen gastuak.....	(15.915)	(11.451)	(31.605)	(24.027)	(434)	(255)
Ibilgetuaren amortizazioa.....	(2.642)	(2.563)	(19.454)	(17.947)	(60)	(20)
Ibilg.ez finantz. eta bestel. diru-lag. egozteak.....	2.731	2.563	11.423	11.423	-	-
Bestelako emaitzak.....	65	85	(13)	-	48	(24)
<b>USTIAKETAREN EMAITZA</b>	<b>116</b>	<b>34</b>	<b>44.479</b>	<b>48.081</b>	<b>859</b>	<b>(530)</b>
<b>EMAITZA FINANTZARIOA</b>	<b>(64)</b>	<b>100</b>	<b>(5.108)</b>	<b>2.112</b>	<b>15</b>	<b>47</b>
<b>EMAITZA ZERGA AURRETIK</b>	<b>52</b>	<b>134</b>	<b>39.371</b>	<b>50.193</b>	<b>874</b>	<b>(483)</b>
Mozkinen gaineko zerga	14	(47)	-	-	-	-
<b>EKITALDIAREN EMAITZA</b>	<b>66</b>	<b>87</b>	<b>39.371</b>	<b>50.193</b>	<b>874</b>	<b>(483)</b>



## VI. GFA-REN ETA PASAI SAN PEDROKO ARRANTZALEEN KOFRADIAREN ARTEAN 2003-AN IZENPETUTAKO HITZARMENA

2003ko apirilaren 29an GFAk eta Pasai San Pedroko Arrantzaleen Kofradiak izotz fabrikaren instalakuntzak gaurkotzeko hitzarmena izenpetu zuten (2003ko maiatzaren 6ko diputatuen Kontseiluak baitetsia eta 2003ko maiatzaren 30ean eskrituran jaso); (egitasmo hori Proiektu Estrategikotzat jo zuen GFAk, Pasaiako Portuan arrantza jardueraren industri garapenerako beharrezkoa; Pasaia, SAK eraikin berri bat eraikitzeko proiektua zuen, 2,4 milioi euroko aurrekontua zuena).

Hitzarmenak honako konpromiso hauek hartzera behartzen zuen GFA:

- Pasaiako Izotza, SAren Batzar Nagusian 2002ko ekainaren 27an hartutako erabakietatik eratorritako obligazioak betetzera.
  1. Izena (Pasaia, SA izatetik Pasaiako Izotza, SA izatera) eta sozietatearen helburua (izotza eta hotza egin eta saltzeko negozioaren ustiapena) aldatzera.
  2. Kapitala handitzera eta Pasaiako Izotza, SArekin GFAREN kreditua kapitalizatzeagatik izenpetzera.
  3. Lehenagoko galerengatik kapitala murriztera.
- Jabetzan zituen Pasaiako Izotza, SAko akzioak Kofradiara aldatzera (41.589 akzio, 0,15 euro/akzioko prezioan, guztira 6.238,35 euroko zenbatekoan).
- Pasaiako Izotza, SAK 2003ko irailaren 30ean gutxienez 756.000 euroko funts propioak izan dituela bermatzera; hori bermatzeko sozietatearen jardueraren beharrian arruntei aurre egiteko beharrezkoa den aktibo ibilkorra baino handiagoa izan behar du; eta hori Kontuen Zinpeko Aztertzaile batek egiaztatu beharko du, aldeztatik sozietatearen kontuen auditoria eginda. Baldin eta aktibo ibilkorrek 756.000 euroko kopurua egingo ez balu, GFAk kapitalezko diru-laguntza emango du aipatutako kopurua lortzeko beharrezkoa den zenbatekoarekin.

Bestalde, Kofradiak honako konpromiso hauek hartu zituen bere gain:

- Pasaiako Izotza, SARI izotz fabrika eraikitzeko beharrezko funtsak ematea, GFAREN ekarpenarekin batera.
- 2003ko apirilaren 29tik aurrera 3 urteko epean Sozietatean langilerik ez kaleratu langileen ordezkariekin adostu gabe.
- Dibidendurik ez banatu, ezta akziodunei ekarpenak itzulita kapitala murriztu ere, harik eta izotz fabrika bete-beteko ekoizpen-etekina ematen ari den arte.
- GFARI proiektuaren garapen eta exekuzioari buruzko informazioa eman.

Aipatutako hitzarmenaren edukiari dagokionez, HKEE honek 2003ko ekitaldiari dagokion fiskalizazio txostenean akzioen besterentze zuzenarekin eta horren balorazioarekin lotutako hainbat akats barne hartu zituen, interes publikoko zioek justifikatzen ez zutena. Hartutako



konpromisoak betetzeari dagokionez, bai GFAk, bai Pasai San Pedroko Arrantzaleen Kofradiak osotasunean bete dituztela ondoriozta dezakegu.

Bestalde, adierazi behar da 2003ko maiatzaren 6ko Diputatuen Kontseiluaren erabaki berean, GFAk Pasaiako Izotza, SAri 396.000 euroko kapitalezko diru-laguntza eman ziola izotz fabrika berria eraikitzeko, azkenean gauzatu ez zena. 2007ko ekainaren 12an GFAk, Diputatuen Kontseiluaren erabaki bitartez, berriz ere aipatutako 396.000 euroko zenbateko zuzeneko kapitalezko diru-laguntza eman zuen Pasaiako izotz fabrika zaharberritu eta egokitzeko 2005 eta 2006an egindako inbertsioak finantzatzeko.

Kasu honetan ere, HKEEk adierazi zuen diru-laguntza honen emakidan publizitatea eta lehia salbustea ez zegoela justifikatua eta gainera, ez zen GAOn argitaratu. Exekuzioari dagokionez, diru-laguntza emandako helburua betetzeko erabili dela eta aipatutako ekitaldietan egindako gastua osorik justifikatu dela egiaztatu da.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO 2009KO KONTU OROKORRAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI EGINDAKO ALEGAZIOAK

Gipuzkoako Lurralde Historikoko 2009ko ekitaldiko Kontu Orokorrari egindako fiskalizazioaren emaitzei erantzuna ematearren, eta otsailaren 5eko 1/1998 Legearen 13. artikuluan zehaztutakoa betez, txosten honetan aurkezten ditugu aipatutako emaitzei dagozkien alegazioak eta justifikazioak.

### 1. LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIARI EGINDAKO ALEGAZIOAK

#### - SARRERA FISKALAK

Atal honetako 2. puntuan HFEEak hauxe dio:

*“2009ko aurrekontu-ekitaldiaren itxieran, zerga zorrak geroratzeko 78 eskabide daude, guztira 37,7 milioi euro egiten dutenak eta ebatzi ez direnak, sei hilabetetik gorako antzinatasuna izanik; honenbestez, urratu egin da Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Diru-bilketako Erregelamenduaren 44.2 artikulua. Gerorapenak ebaztean atzerapen hau izateak ordainketa-plan bat ez dela finkatu eta ez direla dagozkion bermeak eskatu esan nahi du.”.*

#### Alegazioa

Ez da egia 6 hilabetetik gorako atzerapenak berarekin beti dakarrenik ordainketa plan bat ez egitea eta bermeak ez exijitzea, hainbat espedienteren bidez horrela frogatuta baitago<sup>1</sup>.

#### - LANGILEEN GASTUAK

Atal honetan, HFEEak hau adierazten du: (revisar texto en castellano-traducción)

*“GFak zortzi langileri guztira 449.739 euroren zenbatekoa ordaindu die borondatezko erretiro sarien kontzeptuan; sari horiek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergatik salbuetsitako laneko irabazi modura barne hartzen ditu, 2009ko ekainaren 7ko Diputatuen Kontseiluak hartutako Erabakiaren babesean, zeinak Giza Baliabideen Plan Estrategikoa aldarazi zuen. Salbuetsitako errentatzat hartzeko beharrezkoa da Langileen Estatutuaren 51. artikuluan zehazten diren kausetakoren bat gertatzea eta inguruabar hori ez da egiaztatu Giza Baliabideen Plan Estrategikoan”.*

#### Alegazioa

Gipuzkoako Foru Aldundiko langileen 2009-2011 aldiko lan baldintzak arautzen dituen 2009ko uztailaren 7ko Diputatuen Kontseiluaren erabakiak, erretirorako neurriei dagozkien 7. puntuan, arautu zuen Foru Aldundiko karrerako funtzionarioen eta lan kontratupeko

<sup>1</sup> Ez dago ordainketa plana ezarriko duen GFAREN ebazpenik zatikapena/gerorapena onetsi arte, eta bermeak behin ebazpena gauzatu ondoren aurkezten dira.



langile finkoen erretiro aurreratuen aldaketa eta erantsi zuen Gipuzkoako Foru Aldundiko enplegatu publiko izateari uko egite saritua.

Nolanahi ere, neurri horiek Diputatuen Kontseiluaren beste akordio baten bidez arautu ziren, hain zuzen ere Gipuzkoako Foru Aldundiaren Giza Baliabideen Plan Estrategikoaren lehenengo tituluko II. kapitulua aldatzea erabaki zuen 2009ko uztailaren 7ko akordioaren bidez (2009ko uztailaren 15eko GAO, 131 zk.). Zehazki, ondorengo neurri hauek arautu ziren:

- 2.4 neurria. Gipuzkoako Foru Aldundiko karrerako funtzionarioen edo lan kontratudunen erretiro aurreratua. (Erretiro sarien ordainketa)
- 2.5 neurria. Gipuzkoako Foru Aldundiko enplegatu publiko izateari uko egite saritua. (Uko egiteagatiko kalteordainen ordainketa eta Gizarte Segurantzarekiko hitzarmena).
- 2.6. Erretiro partzial edo aurreratuko beste neurri batzuk, dagokien legerian araututa Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean dauden karrerako funtzionarioei aplikatzen direnak.

Azkenik, kontuan hartu behar da lehenengo uko egite saritua 2010eko urtarrilaren 15eko ondorioekin izapidetu zela.

#### - ERAKUNDEEKIKO KONPROMISOAK

Apartatu honen 4. puntuan honako hau adierazten da:

*“Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak (HDEK) 2010eko otsailaren 12an 15,8 milioi euroko aparteko ekarpena adostu du Bizkaiko Foru Aldundiaren alde, Ondarearen gaineko Zerga Gipuzkoako Lurralde Historikoan soilik mantentzeak baliabideen banaketa moldean eta ekarpenak zehaztean izandako eraginaren ondorioz. Zenbatekoa finantzatuko da ondotik zehaztutakoek egindako ekarpenen bidez: Eusko Jaurlaritzak 8,1 milioi eurokoa; Arabako Foru Aldundiak 307.620 eurokoa; eta GFAk, 7,4 milioi eurokoa. Erabakiak ez du arrazoitzen ez zenbatekoen kalkulua, ez zein legezko oinarriren arabera hartzen den eta Ekarpenen Legean ez dago horretarako legezko erreferenterik”.*

#### Alegazioa

Ez-betetze horren azken zatian adierazitakoari dagokionez, alegia. “Erabakiak ez du arrazoitzen ez zenbatekoen kalkulua, ez hura hartzeko lege oinarria, eta Ekarpenen Legean hark ez du legezko erreferenterik”, esan behar dugu Herri Finantzen Euskal Kontseiluak erabakitako zenbatekoak lehendik egindako kalkulu teknikoetan oinarrituta daudela. Izan ere, Bizkaiko Foru Aldundiaren alde onartutako konpentsazioa (15, 8 milioi euro) baliabide erabilgarriek lurralde horretan izan duten jaitsieraren pare-parekoa da, eta jaitsi hori gertatu da Gipuzkoan gehiago bildu delako Ondarearen gaineko Zergari esker. Gainerako lurraldeetan, zirkunstantzia horrek kontrako ondorioa izan zuen, haietan baliabide erabilgarriak handitu egin zirelako. Horrela, Araban irabazia 1,2 milioi eurokoa izan zen (doikuntza fondo orokorraren bidez); Gipuzkoan 28,4 milioi eurokoa (zerga-bilketa handiagoari esker); eta Eusko Jaurlaritzan 31,2 milioi eurokoa (ekarpen handiagoak direla





Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

medio). Eta, hain zuzen ere, irabazi horien proportzioan kalkulatu zen zenbat jarri behar zuten erakunde horiek Bizkaiaren aldeko aparteko konpentsazioa finantzatzeko.

Bestalde, HFEEKren erabakia errekurrirua izan zen legitimazio faltagatik eta administrazioarekiko auzibidean inpugnatzeko moduko jarduketarik ez egoteagatik. Hala ere, Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salak ulertu zuen “Kontseiluaren jarduketak prozedura politiko baten barruan kokatzen direla”, eta erabaki zuen ez onartzea tramitera aipatutako errekurtsoa.

#### - ADMINISTRAZIO KONTRATAZIOA

Atal honetako 5 puntuan HFEEak hauxe dio:

*“Bederatzi zerbitzu kontratatu dira, guztira 1,0 milioi euroren zenbatekoan, publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bitartez; ordea, arrazoi teknikoak edo prozedura hori erabiltzeko bide ematen duten eskubide eskusiboen babesarekin lotutakoak ez dira behar hainbat egiazatu. GFAk urratu egin ditu publizitate eta lehia printzipioak, ez baitu kontratazio arautegiak aurreikusten duen esleipenerako prozedura irekiaren moldea erabili”.*

#### Alegazioa

HFEEak puntu honetan aipatzen dituen kontratuen artean “Udalekuetako ostatua, elikadura eta animazio” zerbitzuak daude.

Zerbitzu horiek prozedura ireki bidez ez esleitzeko arrazoiak azaltzeko, kontuan izan behar da aurretik hartu zen erabakia, alegia, gazteentzako udalekuak Nafarroako iparraldeko zenbait lekutan egingo zirela, non bertako ezaugarri geografikoak erabakigarriak baitira udalekua bera antolatzeko. Udalekuak leku geografiko zehatz horretan egingo zirela erabakita, eta zona horretan esleipena eskuratzeko baldintza teknikoak zituen egoitzarik ez zegoenez -esleipendunarena izan ezik-, ez zen beharrezkoa gertatu prozedura ireki bat erabiltzea, eta azkenean, kontratua eskaintzarik gabeko prozedura negoziatuaren bidez esleitu zen, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 154. d) artikuluan adierazten diren arrazoi teknikoak gertatzeagatik.

Atal honetako 6. puntuan ondoko hau esaten da:

*“GFAk publizitate betekizunak saihestuta 5 kontratu zatikatu ditu, publizitate betekizunak saihestuz eta SPKLren 74.2 artikuluan xedatutakoa urratuz”.*

#### Alegazioa

Honako zerbitzuei dagokienez, laguntza psikologikoa, adingabeen eta tratu txarrak dituztenen egonaldia, eta Idiazabalgo eta Zaldibiako zentroetako laguntza hezitzailea, publizitaterik gabeko prozedura negoziatua erabiltzearen arrazoia da GFA, haurrak babesteari dagokionez, behartuta dagoela Gizarte Zerbitzuetako Sistemak adingabea hartu bezain pronto hari behar bezalako arreta ematera.



Aurreko urteetako joerari jarraiki, 2009an asko izan ziren Gipuzkoara etorri eta Gipuzkoan geratu diren adingabe atzerritarrak (gehienak mutilak eta Marrokotik etorriak).

Adingabeei arreta emateko baliabide zuzkidurari dagokionez, Foru Aldundiaren ahalmenak ez zuen aurrera egiten eskaerak egiten zuen abiaduran, adingabeak etenik gabe baitzetozen.

Aldundia saiatu zen arreta ematen ahalik eta modu osoenean. Zentzu honetan, gainerako administrazioekin lan egin zen, eta arretarako banakako plana egin zen adingabe bakoitzarentzat, eta departamentua saiatu zen arreta hori ahalik eta osoena izatea eta adingabeak erreferentziazko pertsona bat izatea eskura. Horiek elkarte batekoak izan ohi ziren, adingabeen arretaren kudeaketen eskarmentua zuena, Foru Aldundiko teknikarientzat horrek balioa zuelako. Ondorioa izan zen adingabeari ematen zitzaion arreta kontratazio administrazio txostenaren aurretik joatea beti.

Azkenik, *ibilgailuen aseguru*en kontratuari dagokionez, 2010. urtean prozedura ireki bat deitu eta ebatzi da Foru Aldundiaren ibilgailuen poliza kontratatzeke.

#### 8. puntuan hau adierazten da:

*“Guztira 58,1 milioi euroren zenbatekoan esleitu diren hiru obra-kontratuk esleipen zenbatekoaren gainean hurrenez hurren % 32, % 46 eta % 53ko igoerak izan dituzte, aldaketak onetsi eta obra osagarriak esleitu direlako.*

*Gainera, 31,3 milioi euroan esleitu zen obra kontratu batean, 2009ko ekitaldian aldaketa bat onetsi zen, hasierako esleipenaren gainean % 44ko igoera ekonomikoa zekarrena eta % 49ko epe luzapena; hori dela eta, martxoaren 30eko 38/1999 Foru Dekretu baten indarrez, txostena eskatu zitzaion GLHren Aholku Batzorde Juridikoari eta honek 2009ko martxoaren 11ko 3/2009 Irizpen bidez baimendu egin zuen.*

*Aipatutako kontratuen exekuzioan halako aldaketa adierazgarriek administrazioko kontratazioaren arautegian jasotako lehiaketa printzipioak urratzen dituzte, izan ere, igoeren zenbatekoak desitxuratu egiten baitu bai kontratuaren xedea, bai kontratuaren bolumen ekonomikoa ere”.*

#### Alegazioa

Hauek dira 8. ataleko lehen paragrafoan aipatzen diren hiru obra kontratuak:

- GI-131 errepidearen saihesbidea eraikitzea, Donostiatik Hernanira. bidezatia: Donostia-Martutene (2-v-7/1992/s1)
- Urnietan GI-131 errepidearen saihesbidea eraikitzekeo proiektua. (1-V-18/2002/A)
- GI-2637 errepidea Seguratik Zegamaraino zabaltzeko eta hobetzeko proiektua. (2-EM-29/2005/--)

Herri kontuen Euskal Epaitegiak dionez, "administrazioaren kontratazioaren araudian jasotako lizitazio-printzipioak hautsi dira, izan ere, gehikuntzen zenbatekoak kontratuaren



helburua bera eta kontratuaren diru-kopurua desitxuratzen baititu”. Baina ez du argitzen zeintzuk diren hautsizat jo dituen lizitazio-printzipioak.

Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Testu Bateginaren (HAKLTB) 11.1 artikuluan ezarritakoaren arabera “Herri Administrazioen kontratuek publizitate eta konkurrentzia printzipioak bete behar dituzte, Lege honetan bertan ezarritako salbuespenetan izan ezik; eta berdintasuna eta diskriminazio-ezaren printzipioak, beti”.

Txostenean aipatzen diren aldaketei dagozkien kontratuak tramitatzerakoan bete egin dira publizitate, konkurrentzia, tratu-berdintasun eta diskriminazio-ezaren printzipioak; eta egin diren aldaketak, administrazioaren kontratazioaren araudian kontratu-aldaketei buruz ezarriak dauden betekizunei jarraituz onartu dira; zehazki, HAKLTBaren 101. eta 146. artikuluetan aurreikusitakoa betez. Eta artikuluko horiek ez dute inolako mugarik jartzen aldaketei buruz, ez diru-kopuruari dagokionez, ez eta lizitazio-printzipioetan oinarrituta ere; beraz, ezin da esan kasu bat berean ere legea bete ez denik.

Laburbilduz, espediente hauetan bete egin dira Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren dotrinaren arabera, kontratu aldaketak burutzeko bete beharreko eskakizunak: a) interes publikoko premiek bultzatutako aldaketa izatea; b) espedientearen modu egokitzean arazoitzea; eta c) kontratuaren funtsezko baldintzetan ez eragitea (azkeneko baldintza hori, bestetik, Sektore Publikoko Kontratuen Legeak, urriaren 30eko 30/2007 Legeak, kontratu aldaketei buruz ezarritakoa da, eta horrelako kasuen inguruan gaur egun aplikatu beharreko HAKLTBaren 101.1 artikuluan ageri ez dena).

Horrekin batera esan behar dugu kontratuaren helburua ez dela itxuraldatu, aurreikusitako errepideen eraikuntza proiektuak gauzatu egin baitira, aldaketa batzuekin bada ere.

“Kontratuaren diru-kopurua desitxuratzeari” buruz, argitu behar da HAKLTBan ez dagoela era horretako muga bat bera ere, 149.e) artikuluan aipatzen den % 20ko gehieneko muga izan ezik. Eta horrek, hain zuzen ere, lizitazio berri bat egiteko obligazioa baztertzen du, baldin eta, obra batzuen eta besteen kontratistek, muga hori gainditu arren kontratu-harreman juridikoa mantentzearen alde azaltzen badira, aipagai ditugun kasu hauetan gertatu den bezala.

Hurrengo puntuan hau adierazten da:

*“Errepideko garraio zerbitzuaren emakida bati dagokionez, Diputatuen Kontseiluak enpresa emakidadunari 3,0 milioi euroko konpentsazioa ordaintzea erabaki zuen emakidaren oreka ekonomikoari eusteko, horren gaineko hainbat aldaketa onartu ondoren (zerbitzu berriak txertatzea eta prezioa kalkulatzeko modua aldatzea). Aldaketa hauek, aurreko ekitaldietan onetsitako beste batzuekin batera, indarreko kontratua eta hasiera batean lehiatutakoa guztiz bestelakoak izatea dakar eta horrenbestez, kontratuaren xedea desitxuratua geratu da. Publizitate eta lehia printzipioekiko errespetuak emakida berriz lehiatzea eskatuko luke”.*



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## Alegazioa

Bidaiarien errepideko garraio zerbitzua eskaintzeko enpresa emakidadun bati, emakidaren oreka ekonomikoa mantentze aldera, 3,0 milioi euro ordaintzeko Diputatuen Kontseiluak hartu zuen erabakia dela eta, hau adierazten dugu:

- 1.- Bai Bidaiarien errepideko garraioari buruzko Eusko Legebiltzarraren 2004ko martxoaren 18ko 4/2004 Legeko 26.3 artikulua, bai eta Lehorreko garraio antolatze Legearen Erregelamendua onartzeari buruzko 1990eko irailaren 28ko 1211/1990 Errege Dekretuko 77. artikuluko 1. paragrafoak ere, adierazten dute ezen, Administrazioak, interes publikoko arazoak tarteko, aldatu dezakeela, ofizioz edo emakidadunek edo erabiltzaileek eskatuta, emakida tituluan zerbitzuak emateko aurreikusi gabe dauden baldintzak, eta baita ibilbideak luzatu, murriztu edo ordeztu ere, zerbitzua modu hobean eskaintzeko beharrezko eta egokia denean.
- 2.- Aipatutako kontratuaren aldaketak egiteko, horretarako aplikagarri den alorreko legeriak ezartzen dituen baldintzak bete dira, hau da, Bidaiarien errepideko garraioari buruzko Eusko Legebiltzarraren 2004ko martxoaren 18ko 4/2004 Legeak ezarritakoak (hasiera batean Lehorreko garraio antolatzeari buruzko 1987ko uztailaren 30eko 16/1987 Legea) eta Lehorreko garraioa antolatze Legearen Erregelamendua onartzeari buruzko 1990eko irailaren 28ko 1211/1990 Errege Dekretuak xedatutakoak.
- 3.- Bestalde, Bidaiarien errepideko garraioari buruzko Eusko Legebiltzarraren Legeko 23. artikulua, Lehorreko garraioa antolatze Legeko 72. artikulua eta lege horren Erregelamenduko 64. artikulua, emakiden eskusibotasunaren oinarritzko printzipioa ezartzen dute.

Lehorreko garraioen araudi erregulatuak jasotzen duen trafikoaren eskusibotasunak hau esan nahi du: Administrazioak, oro har, ezin duela emakidarik eman aurretik indarrean dauden erabilera orokorreko zerbitzu erregularrek eskaintzen dituzten antzeko ibilbideetan zerbitzuak eskaintzeko.

Hortaz, indarrean dagoen emakida administratibo baten bidez eskaintzen ari den garraio zerbitzu batean behar berriak sortzen direnean, Administrazioak, interes publikoko arazoak tarteko, emakidan emandako zerbitzuaren ezaugarriak aldatzera jotzen du, zerbitzuaren ibilbideak izan, adarrak izan edo beste ezaugarri batzuk izan. Administrazioak ezin du zerbitzu berriak lizitaziora atera, zerbitzu horiek jada baimenduta dauden beste trafiko edo zerbitzu batzuekin talka egiten badute edo bat etortzen badira.

Herri Kontuen Euskal Epaitegiak bere fiskalizazio txostenean aipatzen duen kasuan, indarrean zegoen kontratu bati eragiten zien aldaketak izanik, ezarri diren zerbitzu, ibilbide eta hobekuntza berriak, enpresa emakidadunak bakarrik eskaini zitzakeen.

- 4.- Emakida kontratua 2012an iraungitzen da, eta urte horretan emakida berria emateko lizitazioa egingo da, ondo bidean, azken urteetan egin diren hobekuntzak guztiak bere baitan hartuko dituena.

Zerbitzuen beste lizitazio bat egin nahi izan balitz, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak iradokitzen duen bezala, emakida erreskatatu egin beharko litzateke, eta erreskatea



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

egin ahal izango litzateke, bakarrik, hura egitea justifikatu luketen interes publikoko arrazoiak egongo balira, Eusko Legebiltzarraren 2004ko martxoaren 18ko 4/2004 Legeko 31. artikuluan adierazitakoaren arabera. Gainera, kontratistaren aldetik ez-beteterik ematen ez zenez, kalte-ordaina ordaindu beharko zitzaion.

#### - DIRU LAGUNTZAK

Atal honetan, HFEEak honako puntuak nabarredu ditu, besteak beste:

*“Diputatuen Kontseiluak diru-laguntzak eman dizkie modu zuzenean 8 toki-erakunderi eta irabazi asmorik gabeko 8 erakunderi, guztira 7,5 milioi euroren zenbatekoan; ordea, ez da behar hainbat justifikatu publikitate eta lehia ezartzek ezintasuna”.*

#### Alegazioa

Diru-laguntza zuzenei dagokienez, diru-laguntzak ematea onartzen duten Diputatuen Kontseiluaren erabakietan ezarrita dago interes publikoko eta izaera sozialeko zer arrazoiaren arabera eman daitezkeen diru-laguntza zuzenak, 2007ko martxoaren 27ko 3/07 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzenak, 20.3.c) artikuluan xedatzen duena betez.

Zehazki, HKEEren txostenean aipatzen diren diru-laguntzei buruz zera adierazi behar da:

#### - Goierri Fundaziori emandako diru laguntza.

Entitate hau 1986an sortu zen eta bere xedea da Goierri prestakuntza eta garapen tekniko, ekonomiko eta soziala bultzatzea. Erakundeak Goierri Berrikuntza Gunea Ordizia udalerrian sortzea sustatu du, bertan kokatuta baitaude, halaber, Goierri Lanbide Eskola, Mondragon Unibertsitatearen Goierriko Campusa, Goierri Zerbitzu Teknologikoa eta LORTEK Teknologia Zentroa.

GFAREN 2007-2011 Kudeaketa Planaren ekintza-ildoan arteko bat Lurraldeko eskualde, enpresa eta eragileen I+G+b alorrean dauden beharrei erantzutea zen, eta baita I+G+b alorreko proiektu edo azpiegitura berezi edo estrategikoak babestea ere, eta hori Goierri Fundazioari Goierri Berrikuntza Gunea sustatzeko emandako diru-laguntzaren izaera berezia zurrizko moduko arrazoiak da, azpiegitura horrek izaera estrategiko garbia baitu, eta interes publiko eta ekonomikoa baita Goierri eskualdean nahiz, hedapenez, Gipuzkoako Lurralde osoan.

#### - Donostiako Udalari dirulaguntza ematea, hipodromoko zubiaren eta Zubieta auzoaren artean bizikleta eta oinezkoentzat bide-zatia egiteko.

Zera hauek aipatu behar dira Gipuzkoako Foru Aldundiak, behin Donostiako Udalak eta erakunde honek lankidetzaz hitzarmena sinatu ondoren, eman zuen diru-laguntza zuzena justifikatzen duten interes publikoaren eta izaera sozialaren aurrekari eta arrazoibide gisa: batetik, Gipuzkoako Bizikleta Bideei buruzko 2007ko urtarrilaren 24ko 1/2007 Foru Araua, zeinak berriazko esparru juridiko bat ezartzen duen foru bizikleta-bideak planifikatu, egin, ustiatu eta sustatzeko; eta, bestetik, Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Plana, non agertzen den, Donostia-Mutriku 2. ibilbidearen barruan, Lasarte-Oria eta Aginaga arteko zatia egitea (zati horren tarte bat da Lasarte-Oria eta Zubieta artekoa).



Beste aldetik, kontuan hartu behar da, baita ere, Donostiako Udalaren proiektuetako bat zela Donostiako hipodromoko zubitik sarbide bat egitea Zubietara, Toki Inbertsioko Estatu Funtzaren kargura.

Ikusirik bi erakundeon arteko interes-gunea zela bizikleta beste garraio-aukera bat bezala sustatzeko estrategiak garatzea, egoki iritzi lankidetzaz hitzarmen bat sinatzea bizikleta eta oinezkoentzat bide-zatia hipodromoko zubiaren eta Zubietako auzoaren artean egin eta finantzatzeko –Lasarte eta Zubietako bizikleta bidea egiteko proiektuan (2. ibilbidea: Donostia-Murtriku) definitutakoaren arabera, interes publikoko eta izaera sozialeko arazoak zeudenez gero.

- Hondakinak kudeatzen dituzten mankomunitateek garbiguneak egiteko diru-laguntzak. Diru-laguntzak emateko lehiarik ez dela egin-eta, kontuan hartu behar da diru-laguntza horiek hondakinak kudeatzen dituzten Gipuzkoako Lurralde Historikoko mankomunitate guztiei eman zaizkiela. Hain zuzen ere, 2008ko abenduaren 23ko eta 2009ko otsailaren 10eko erabakien bidez, diru-laguntza zuzenak eman zitzaizkien hondakinak kudeatzen dituzten zortzi mankomunitateei, instalazio horiek egitea finantzatu zezaten.
- Emaus gizarte fundazioari diru-laguntza bat ematea, hondakinak berreskuratu eta berrerabiltzeko zentro bat jarri zezan.

Diputatuen Kontseiluak, 2009ko maiatzaren 12ko bileran, 300.000 euroko diru-laguntza zuzena onartu zuen Emaus gizarte fundazioaren alde. Diru-laguntzaren xedea zen zentro bat abian jartzea, Irunen, tamaina handiko eta ehungintzako hondakinak berreskuratzeko, berrerabiltzeko, konpontzeko eta berregiteko, eta, hartara, prebentzioaren alorrean erreferentziazko bihurtu den berrerabilpeneko eredu bat finkatzea.

Izan ere, 7/2008 Foru Arauaz onartutako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2002-1016 Plan Orokorrean bost programa lantzen dira eta, horien artean, prebentzioari buruzkoa nabarmendu behar da. Programa horretan, hondakinak berrerabiltzeko neurri batzuk agertzen dira eta, horien artean, materialak berreskuratzeko zentroak abian jartzea nabarmendu behar da.

Horregatik, kontuan harturik berrerabilpen-zentro bat gutxienez izan behar genuela, Donostiako Belartzan materialak berreskuratzeko zentro bat jartzea bultzatu zen, Emaus gizarte fundazioarekin egindako lankidetzaz hitzarmen baten bidez. Emaus, irabazi asmorik gabeko erakunde bat da, eta helburutzat du ingurumena babestea eta, bazterturik dauden kolektiboak gizarteratzen eta lan merkatuan sartzen laguntzeko, hondakinak ikuspuntu ekologiko batekin ustiatzea.

Donostiako zentro horretan lan handia egin zenez, berrerabilpeneko plantak ezin zuen gehiago eman eta, horregatik, erabaki zen beste urrats bat egitea eta, Irungo udalerrian, berreskurapeneko beste zentro bat abian jartzea.

Arrazoi horregatik, erabaki zen Emaus gizarte fundazioarekin beste lankidetzaz hitzarmen bat egitea, zentro berri hori abian jartzeko. Hitzarmen horretan, ekarpen ekonomiko bat aurreikusten zen, 2007ko martxoaren 27ko 3/07 Foru Arauak,



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzenak, 20.3.c) artikuluan xedatzen duenaren arabera diru-laguntza zuzenaren kontzeptuan ematekoa. Izan ere, bai aipatutako hitzarmenean bai Diputatuen Kontseiluaren erabakian behar bezala arrazoitzen zen interes publikoko eta izaera sozialeko arrazoiak ematen zirela, ikuspuntutzat hartuta bai Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2002-2016 Plan Orokorreko zehaztapenak, bai Emaus gizarte fundazioaren helburuak.

- Hondarribiko Udalari (Kultur Etxeko obrak) eta Azpeitiko Udalari (Soreasu kultur ekipamendua) emandako diru laguntzak.

Bi diru laguntza horien espedienteetan jasota dagoen txostenean diru laguntza horiek zuzenean ematearen zergatia azaltzen da: batetik, ekitaldiko aurrekontu baliabideak ez zirelako behar bestekoak kultur ekipamenduari buruzko plan bat idazteko, eta, bestetik, egoera aztertu ondoren baieztatu zelako une horretan bi udal horiek bakarrik zituztela zenbait proiektu gauzatze fasean; beraz, horregatik iritzi zen bi diru laguntza horiek zuzenean ematea arrazoituta zegoela eta ez zela beharrezkoa konkurrentziarik sustatzea. Bi proiektu horiek, gainera, funtzio estrategiko bat betetzen zuten. Izan ere, herritarren hurbileko ekipamendutzat hartuta zeuden biak, eta hiriburuaren konurbaziotik kanpoko herri eta eskualde gipuzkoarretan kultur eskaintza orekatzea zuten helburu.

## 2. FORU ALDUNDIAREN KONTUARI BURUZKO IRITZIARI EGINDAKO ALEGAZIOAK

Epaitegiaren txostenak URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA deituriko II.1.2 atalean dioenez, GFAREN Diruzaintzako Gerakina, 2009ko abenduaren 31ra artekoa, 17.119 mila euro gehitu behar da bi doikuntza hauen ondorioz.

		Mila eurokotan
		Diruzaintzako Gerakina
ERANSKINA		31.12.2009
A.7	Aurrekontu kontab. erregistratu gabeko zordun eta hartzekodun tributarioak, hornidurak kenduta	22.345
A.14	2009ko obra ziurtapenak, 2010ean erregistratuak .....	(5.226)
GUZTIRA		17.119

Lehen doikuntzari dagokionez, zehaztu beharra dago “Aurrekontu kontabilitatean erregistratu gabeko zordun eta hartzekodun tributarioak, hornidurak kenduta” saldoaren informazioa, GFAk Diruzaintzako Gerakinaren kalkuluan konputatzen ez duena, jasota ageri dela Kontu Orokorrean, hain zuzen ere Kudeaketa Tributarioari buruzko Txostenean. Bi arrazoiengatik ez ditu sartzen GFAk Diruzaintzako Gerakinean hornidurak kendu ondorengo zordun eta hartzekodun tributarioak: batetik, zuhurtasun arrazoiengatik, eta, bestetik, haien zenbatekoa, kobratu gabeko zorraren zenbateko osoaren aldean (644,7 milioi euro) tamaina handikoa ez izategatik (22,3 milioi euro).



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

### 3. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEN ETA KUDEAKETA PROZEDUREN GAINENKO IRIZPENARI EGINDAKO ALEGAZIOAK

#### 3.2 "III.2 SARRERA FISKALAK" ATALARI EGINDAKO ALEGAZIOAK

Sarreren deustapenari buruzko atalean, Kontuen Epaitegiak kirol entitate bati eragiten dioten hainbat prozedura aztertu ditu.

Entitate horren zehapenak barkatzeari dagokionez, ez dira ulertu egindako aipamenak, denbora guztian indarrean dagoen araudiari lotuta daudela onartzen den neurrian.

Bestetik, zeharpenak barkatzearen figura juridikoaren helburua zehapenak iraungitzat hartu ahal izatea da, bai egoera ekonomiko larri batek beharrezko egiten duenean eta bai zehapen araudiaren zorrotasuna egokitu behar denean. Figura hori bereziki araututa dago, eta bidegabeko emaitzak saihesten ditu arautu gabeko irizpideak erabiliz. Horrela, zehapenaren figurak dirauen bitartean, funtsean graziazko izango da.

HFEEaren txostenak honako hau ere dio atal honetan:

*“Zor guzti hauei dagokienez, preskribitu aurretik erantzukizuna bideratzeko prozedura abiarazteko aukera aztertu behar litzatekeela uste dugu”.*

#### Alegazioa

Barruko jarraibide batek irizpideak ezartzen ditu deribazioa hasteko zorraren zenbatekoaren eta haren eta balizko deribazioaren izaera edo arrazoiaren arabera.

Jarraibide horren xedea da irizpide objektibo orokor eta bakarrak ezartzea, deribazio prozedura efizientziari eta baliabideen optimizazioari lotutako irizpideak aplikatuta hasteko edo ez hasteko.

Jarraibide horretan emandako irizpide orokorren arabera deriba daitezkeen zor guztiak, deribatzen saiatzen gara.

Hortaz, esandako jarraibidean emandako irizpideen arabera bidezkoa ez den kasuetan, ez zaio hasierarik ematen deribazio prozesuari.

#### Zerga zorrak ordaintzeko gerorapenak

*“Ekitaldian 7,4 milioi euroren zenbatekoarekin emandako 11 gerorapenetan, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Diru-bilketa Erregelamenduaren 44.2 artikuluan ezarritako sei hilabeteko epea gainditu da eskabidea aurkezten denetik ebazpena jakinarazteko. Atzeraldi hauek esan nahi dute zorraren ordainketak zergapekoak gerorapen eskabidearekin batera aurkeztutako ordainketa-planaren arabera egiten direla, GFAk onetsi ez duena eta onetsi bitarte arte dagozkion bermeak ez direla eratzen”.*





Alegazioa

Ez da egia 6 hilabetetik gorako atzerapenak berarekin beti dakarrenik ordainketa plan bat ez egitea eta bermeak ez exijitzea, hainbat espedienteren bidez horrela frogatuta baitago<sup>2</sup>.

### 3.3 "III.3 KONTRATAZIOA" ATALARI EGINDAKO ALEGAZIOAK

#### Kontratuen erregistroa

Atal honetan, HFEEak honako hau dio:

*"GFAREN Kontratuen Erregistroak ez ditu 24/2001 Foru Dekretuan finkatutako alderdi guztiak jasotzen, horiek egiteko moldea arautzen duena. GFAk kontabilitatearekin integratutako prozedura finkatu beharko luke kontratuen erregistroa egiteko".*

Alegazioa

Epaitegiak badaki gaur egun kontratuen erregistroa eskuz kudeatzen dela, eta prozesua konplexua eta luzea izaten dela denboran. Kontratuen luzapenak eta aldaketak erregistroan sartzeak berekin ekarriko luke une hauetan erregistroan jardute duten langileen kopurua nabarmen handitzea. Izan ere, departamentuek, Epaitegiaren arabera, Erregistrora bidali behar duten informazioak egiaztatuta egon behar du aldeaz aurretik, erregistratu beharreko informazioaren fidagarritasuna bermatzeko.

Horri dagokionez, eta aurreko ekitaldietako alegazioetan adierazi izan dugunez, kontuan izan behar da azken urteotan lanean jardun dela kontratu publikoen kudeaketarako gaur egun erabiltzen den aplikazio bat GFarentzat egokitzeke; hala ere, azkenean baztertu egin da hura abian jartzea. Ondorioz, gaur egun ez dago inolako tresnarik 24/2001 Foru Dekretuan aipatzen diren aspektu guztiak eskuratzeko, eta horiekin urteko kontratazio memoria osatzeko

#### Kontratatzailearen profila

*"Bai GFAn, bai Uliazpi foru erakunde autonomoan eta Enpresa Sektore Publikoaren erakundeetan, kontratugilearen profila euskarrizten duen sistema informatikoak ez du bertan jasotako informazioaren hedapen publikoa noiz hasten den modu frogagarrian egiaztatzeke bide emango duen baliabiderik".*

Alegazioa

Foru Aldundiak, 2009an, ez zeukan kontratatzailearen profilean argitaratzearen frogagailurik, eta ondorioz, kontratazio iragarki guztiak aldizkari ofizialetan argitaratzen ziren. 2010az geroztik, badauka egiaztargailu hori.

<sup>2</sup>

Ez dago ordainketa plana ezarriko duen GFAREN ebazpenik zatikapena/gerorapena onetsi arte, eta bermeak behin ebazpena gauzatu ondoren aurkezten dira.

## Kontratazio espedienteak

*“Zortzi obra kontratatuan igoera nabarmenak azaleratu dira aurreikusitako exekuzio epearen eta egiazkoaren artean. Nahiz luzapenak egoki izapidetu diren, horiek zergatik gertatu diren aztertuta beharko litzateke atzerapenak saihesteko, bereziki epe murrizketa kontratua esleitzeko irizpide modura baliatu den kasuetan”.*

### Alegazioa

- GI-131 errepidearen saihebidia Donostiatik Hernanira eraikitzeke kontratua. Bidezatia: Donostia-Martutene (2-V-7/1992/S1)
- Urnietan GI-131 errepidearen saihebidia eraikitzeke proiektuaren kontratua. (1-V-18/2002/A)
- Andoainen GI-131 errepidearen saihebidia eraikitzeke proiektuaren kontratua. (1-V-18/2002/B)
- N-121-A errepidea Laskoaingo biribilgunetik (Behobia) Endardatsaraino (Nafarroarekiko muga) zabaltzeko eta hobetzeko proiektuaren kontratua(2-EM-31/2004).
- GI-2637 errepidea Seguratik Zegamaraino zabaltzeko eta hobetzeko proiektuaren kontratua. (2-EM-29/2005).

Aspaldidanik, bide azpiegiturak kontratatzeke espedienteetan, obra gauzatzeko epea ez da erabiltzen esleipena egiteke irizpide gisa. Ildo horretan, HKEEak aipatzen dituen 5 espediente horietatik bakar batean erabili da epea, esleipena egiteke irizpide gisa; zehazki, GI-131 errepidearen Donostia-Hernani saihebidia, Donostia-Martutene bidezatia, eraikitzeke proiektuari buruzko espedienteetan.

Alabaina, HKEEak dio epea laburtzea ere esleipena egiteke irizpide gisa erabili dela, halaber, GI-2637 errepidea Seguratik Zegamaraino zabaltzeko eta hobetzeko proiektua (2-EM-29/2005) adjudikatzeko. Baina hori ez da zuzena, eta egia ez dela erakusteko, baldintza administratibo berezien agiriaren karatula erantsi zaio agiri honi (6. *Eranskina*). Era berean, informean baiespen hori zuzen dadin eskatzen dugu. .

Bestetik, atzerapenak ekiditeke, atzerapena bultzatzen duten arrazoiak aztertzeke egiten zaigun gomendioari dagokionez, esan behar dugu era honetan kontratuan ohikoan betetzen dela zeregin hori, baina ezin da esan horrek derrigorrez epeak betetzen laguntzen duenik.

- Elgoibar-Maltzaga (4. ibilbidea: Deba bailara) bizikletari eta oinezkoentzako bide zatia egiteke proiektua (1-BI-42/08).

Epea 4 hilabetetik 6 hilabetera luzatzea behar den eran tramitatu da, eta espedienteetan zilegi den eran justifikatuta dago. Justifikazio horretatik ondorioztatzen da exekuzio epea zabaltzeko arrazoiak saihestezinak izan zirela, eta ezin izan zirela aurreikusi. Bestalde, esan beharra dago epea hobetzea ez zela baloratu.

Gai honi gagozkiola, ez da ahaztu behar bai HAKLTBak eta bai SPKLak, aurreikusten dutela kontratuen exekuzioan atzerapenak gerta daitezkeela, bai kontratistari lepora



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

dakizkiokeen arrazoiengatik (HAKLTBaren 95. art. eta SPKLaren 196. art.), bai kontratistari egoztekoak ez diren arrazoiengatik (HAKLTBaren 96.2 art. eta SPKLaren 197.2 art.). Horren arabera erabakitzen da, hain zuzen, exekuzio epea zigorrekin edo zigorrik gabe luzatzea, eta baita kontratua indargabetzea ere.

Bestetik, zenbaitetan, proiektu eraberrituak onartzearen ondorioz, obren exekuzio epeetan aldaketa batzuk egiten dira HAKLEOak ezarritakoari jarraituz (159. eta 162. artikulua). Hori gertatu da A.14.2 eranskinean aipatu diren obra batzuetan, hau da, proiektua eta kontratua bera aldatzearen ondorioz, obrak exekutatzeko epeak ere zabaldu egin dira<sup>3</sup>.

## Publizitaterik gabe negoziatuak

Apartatu honetan, hauxe dio fiskalizazio txostenak:

*“Guztira 304.649 euroko bost zerbitzu publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bidez kontratatu dira, eskaintzak egiteko eskatu gabe eta SPKLren 154.d) artikulua babes hartuta, eskaintzak eskatuta publizitaterik gabeko prozedura negoziatua beharrean prozedura hori erabiltzeko bide eman duten inguruabarrak behar hainbat egiaztatu gabe”.*

### Alegazioa

- GFaren kreditu kalifikazioa (rating-a) lortzeko kontratua.

Gfaren kreditu kalifikazioa (rating-a) lortzea: rating-a kanpoko enpresa batek finantza arriskuari buruz emandako sailkapena da, eta haren ingurune ekonomikoaz, merkatuetako lehiakortasun posizioaz, finantza sendotasunaz eta une bakoitzeko zor bizen jaulkipenen ezaugarriez kalifikatutakoaren azterketa bat da. Horri esker, lotura estu bat finkatzen da, haren egitura ekonomiko-finantzarioaren edozein aldaketa rating-ean islatuta geratu dadin.

Horrek adierazi nahi du kalifikazioa ematen duen enpresaren prestazioaren benetako hartzaileak inbertsiogileak direla eta ez, ordea, hura kontratatzen duen administrazioa, azken hori informazioa ematera eta berari eskatutako ordainketa egitera mugatzen baita.

Gaur egun, arrisku kalifikazioko agentzien legeriaren ondorioz, oligopolio bat sortu da, eta horrek praktikan ekarri du hiru agentzia handien zerbitzuak erabiltzea: Standard and Poor`s, Moody`s eta Fitch.

Aldi berean, horren ondorioz, tarifak ezartzeko sistema aurrez finkatuta dago. Enpresa horiek mundu mailan eta alde bakarretik finkatzen dituzte prezioak. Beraz, rating-a mantendu nahi izanez gero, enpresa haien baldintzei atxiki behar zaie.

<sup>3</sup> Kasu guztietan balioztatzen da memoria teknikoa eta bertan lanerako programarekin batera, egiteko epeak zehazten dira.



- Naturari buruzko jardunaldiak, Naturaldia 2009, diseinatu eta aurrera eramateko kontratua:

Zerbitzua esleitzeko ebazpenean behar bezala justifikatzen da zergatik ikusten den ez dela beharrezkoa hiru eskaintzak aurkeztea Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 162.1 artikuluan ezarritzen duen moduan. Izan ere, Naturari buruzko Naturaldia jardunaldiek hogeituro urteko bizitza dute eta “egile” jardunbidetzat hartu behar dira; hasieratik bertatik, pertsona esleipenduna izan da jardunaldi horiek goitik behera diseinatu eta garatu dituenak. Horregatik, kontuan harturik jardunaldi horiek kutsu guztiz pertsonala dutela, irizten da ezin dela hiru eskaintza lehian jartzea bultzatu, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legeak 162. artikuluan eskatzen duen bezala.

- Debako Praileaitz haitzuloko bibrazioak kontrolatzeko zerbitzuaren kontratua.

Praileaitzeko margoen gelarako sarrera oso murriztua izan behar du iraupena dela medio eta soilik Jaurlaritzako eta Diputazioko Arkeologo teknikariak baimenduta daude. Bestalde, Erregistro jarraia sismografo digitalak oso eskasak dira, eta Meatz eta metalurgi Ingeniaritzaren eta Materialen Zientziaren Sailak bermatzen du aztarnategi honetarako soilik erabiliko dela. Unibertsitateak soilik bermatzen du bestalde beharrezkoa den objektibitatea konfidentzialtasuna eta kompetentzia teknikoa.

- Azterketak eta aholkularitza zerbitzuak egiteko kontratua

Kontratu bi horietan zera gertatzen da, lortu nahi ziren helburuak bat zetozela Mondragon Unibertsitateko UHEZIREn proiektu batekin. Bada, kontuan izanik proiektuaren jabetza intelektuala haiei zegokiela, eta ikusirik Sektore Publikoko Kontratuen Legean ezarritako zirkunstantziak betzen zirela, bidezko iritzi zen zerbitzua publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez kontratatzea.

Lege horren 154. d) artikuluan ezarritakoaren arabera, publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez kontratatu daiteke, besteak beste, baldin eta, arrazoi tekniko edo artistikoengatik, edo eskusiba-eskusibideak babestearekin zerikusia duten arrazoiengatik, kontratua enpresaburu jakin bati baino eman ezin zaionean. Zehazki, zerbitzu kontratuen kasuan, 158.a) artikulua dio kontratu horiek prozedura negoziatuaren bidez esleitu daitezkeela, baldin eta, kontratuaren prestazioaren ezaugarriak direla-eta, batez ere prestazio intelektualak dituzten kontratuetan, haien baldintzak ezin badira behar den zehaztasunarekin ezarri beste kontratazio prozedura baten bitartez esleitzeko.

## Kontratazio administratiboko espedienterik gabeko gastua

Atal honetan, HFEEak alderdi hauek nabarmendu ditu:

*“GFAk xede bakarreko lanetan, 1,6 milioi eurokoak, ez ditu gastuak exekutatzeko prozedura negoziatu bitartez administrazio-kontratazio derrigorrezko espedienteak izapidetu, hogeita zazpi zerbitzu, bost hornidura eta kontratu pribatu bati dagozkionak”.*

## Alegazioa

Baieztapen hori ez dator bat errealiarekin jarraian aipatzen diren kasuetan:

- G+20 proiektu estrategikoa.

Fakturatutako zenbatekoa bi prestazio desberdini dagokie. Kasu batean, fakturatutako kontzeptua da “Gipuzkoako benchmarking proiektu estrategikoa”, 17.400 eurokoa, BEZa barne; eta bestean, berriz, fakturatutako kontzeptua da “2009. urteko G+20 laguntza teknikoa”, 14.500 eurokoa, BEZa barne.

- G+20 prozesuaren diagnostikoa.

Txostenean aipatzen den 37 mila euroko zenbatekoak bi kontzeptu desberdin hartzen ditu: batetik, “G+20 diagnostikoaren eztabaida eta sozializazio aldiko laguntza eta akonpainamendua”, 19.047,20 eurokoa, BEZa barne; eta bestetik, “1. dokumentuaren azkeneko edukiak idaztea, Gipuzkoako diagnostiko estrategikoa G+20 prozesurako”, 18.154 eurokoa, BEZa barne.

- Gazteak 500.

Berdin esan behar dugu Elhuyar – Zubize SL enpresaren kasuan. Kasu batean, fakturatutako kontzeptua da “Gazteak 500. 53t abestean53a eskualdeko tailerrak antolaketak”, 17.400 eurokoa, BEZa barne; 53t abestean, berriz, fakturatutako kontzeptua da “G+20 Gazteak 500. Parte hartzeko proiektuaren diseinua. 2009ko maiatza”, 20.880 eurokoa, BEZa barne.

- Aia urez hornitzeko proiektua idaztea (7-AC-46/07 P).

Kontratu hau prozedura ireki bidez liziatu zen, eta, beraz, ez dago inolako arrazoirik fiskalizazio txostenaren atal honetan sartzeko: 2007ko irailaren 26ko Foru Aginduaren bidez, laguntza teknikoa lehiaketa bitartez kontratatzeko espedientea onartu zen; laguntza teknikoaren kontratu-aurrekontua 89.279,40 euro izan zen. Beste aldetik, lehiaketako izapideak bete ondoren, kontratua 2007ko abenduaren 27ko Foru Aginduaren bitartez 74.182,00 euroan esleitu zen. Azkenik, Obra Hidraulikoetako zuzendari nagusiak, 2009ko abenduaren 17ko Ebazpenaren bidez, kontratuaren likidazioa onartu zuen, 76.887,12 euroan (7. Eranskin gisa doa).

Egindako hiru azterketa hidrologikoak, hau da, Legorreta-Beizama arearen ebaluazio hidrogeologikoa; Urkizuko arearen ebaluazio hidrogeologikoa; eta Zarauzko ebaluazio hidrogeologikoa. Horiei buruz adierazi behar da ezen, 2008ko urtearen bukaera aldean, enpresa bati Legorretako arearen ebaluazio hidrogeologikoa egitea eskatu zitzaiola. Kontratuaren zenbatekoa 4.350 euro izan zen, BEZa barne. Azterketa horren ondorioetan gomendatzen zen, batetik, saiakera-froga bat egitea meategi-zundaketetako batean, eta, bestetik, zundaketa jalgigarriaren eta Albizturko unitate hidrogeologikoaren arteko arearen kartografia hidrogeologikoa egitea.

Gomendio horiekin bat eginez, 2009ko urtean Legorreta-Beizama arearen ebaluazio hidrogeologikoa enkargatu zitzaion enpresa berari; izan ere, lan hidrogeologikoak egiten, Euskal Autonomia Erkidegoan, esperientzia handiena zuen enpresa zen hura eta, gainera, bi lanen aurrekontua, BEZik gabe, ez zen 18.000,00 eurora iristen.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Beste aldetik, Urkizuko arearen ebaluazio hidrogeologikoa eta Zarauzko ebaluazio hidrogeologikoa ere (horren edukia eta beste biena guztiz ezberdinak dira eta beren artean ez dago inolako loturarik) enpresa horri esleitu zitzaion, lehen esandako arrazoiengatik: Euskal Autonomia Erkidegoan lan hidrologikoen arloan esperientzia handienekoa izateagatik eta esleipenaren zenbatekoa, BEZik gabe, 18.000,00 eurora ez iristeagatik.

Laburbilduz, ez da, inolaz ere, kontratuaren xedea zatikatu, eta ez dira saihestu Sektore Publikoko Kontratuen Legeak, kontratu bat kontratu txikitzat hartzeko, jartzen dituen baldintzak.

- Semaforo instalazioak.

HKEEak bestelakorik adierazi badu ere, aipatutako jarduera horiek hiru obra osoak eta independentetan burutu dira, kilometro-puntu desberdinetan hain zuzen ere (GI-2637an, GI-3560 errepideko 0,170 kp.an, eta GI-3560 errepideko 0,390 kp.an).

Adierazitakoari jarraituz, esan behar dugu ez dela inolako zatiketarik egin, ez eta kontratu publikoen alorrean indarrean dagoen araudiko agindu bat bera urratu ere; izan ere, bestela, ondorio honetara iritsi liteke, alegia, semaforo instalazioetako obra guztiak obra-kontratu berean egin behar direla, zelako jarduera zehatzak egin behar diren, premia noiz sortzen den edo zein distantzia geografikoa dagoen begiratu gabe, eta kontratazioaren espedientea tramitatzeko garaian zehaztu beharreko gainerako gorabeherak aintzat hartu gabe.

- Aforagailuak.

Alegazioan aipatzen diren hornidurak, aforagailuen erosketak izan dira. Bi makinak aparte erosi dira, errepideak martxan jarri ondoren bidezati berrien aforoei buruzko informazioa jasotzeko; eta hain zuzen ere, erakundeei eta herritarrei eman beharreko informazioa osatzeko, heinean-heinean antzematen ziren informazio-premien arabera.

Gai honi gagozkiola, Kanarietako Gobernuko Administrazio Kontratazioko Aholku Batzordeak hauxe dio 1/2010 informean: “Horrela, kontratu bakoitza mugatzen duen elementu bat kontratu-kausa dela kontuan hartuta, kontratuaren helburuaren iruzurrezko zatiketarik ez dela izan ondorioztatuko dugu, baldin eta lehendabiziko kontratua amaitu ondoren, kontratu hori egiteko unean aurreikus ezin zitekeen premia berri bat sortzen bada eta, ondorioz, kontratista berarekin berriro ere prestazio berbera kontratu behar bada. Horrelakoetan, kontratuko subjektuak eta helburua lehengoak berak izango dira; alabaina, kausa (kontratua egiteko premia bultzatu duen xedea edo zirkunstantziak) ez da hala izango; horregatik, bi kontratu desberdintzat hartu beharko dira. “

Hori guztia dela-eta, kasu honetan da inolako zatiketarik egin, ez eta kontratu publikoen alorrean indarrean dagoen araudiko agindu bat bera urratu ere; izan ere, bestela, zentzugabeko egoera bat gerta liteke; hau da, aforagailuen hornidura guztiak espediente bakar batean tramitatu behar izatea, kontratazio espediente bat helburu jakin batekin eta diru-kopuru jakin batekin tramitatzeko ezinbestekoak diren premia zehatzak ezagutu gabe.



Ondoren zehazten dira, kontratazio administratiboak izapidetu ez izanaren arrazoiak:

- Gipuzkoa Aurrerari aholkularitza.

2007-2011 legealdiko Kudeaketa Estrategikorako Planaren esparruan, erdietsi nahi den helburuetako bat lurraldeko eragile guztiak bat etortzeko mekanismoetan sakontzea da - Gipuzkoa irekiagoa egiteko bidean, itunak egitea abiagune hartuta horretarako-; horiek horrela, lankidetza publiko-pribatuaren seinale, Gipuzkoa Aurrera sortu zen.

Ekimen horren izaera berritzailea kontuan hartuta, Foru Aldundiak erabaki zuen, epe jakin baten ikuspegitik begiratuta, "Agencia de Comunicación de servicios plenos, Aurman" agentziaren aholkularitza kontratatzea 7 hilabeterako; izan ere, agentzia horren parte hartzea erabakigarria izan da Bilbon eta Bizkaian gauzatutako antzeko esperientzia arrakastatsuetan.

- Dokumentazio alorrerako laguntza.

Komunikazio Zuzendaritzaren prentsa dokumentazioari buruzko zerbitzuak oinarrizko bi arlo hauek ditu: sare korporatiboan, goizeko 8:00etarako, erabilgarri dagoen lehen edizioko prentsa laburpena egitea egunero; eta prentsako datu-base elebiduna eguneratzea eta ustiatzea -azterketa dokumentalaren enpresa esleipendunaren eta Foru Aldundiko administrazio arloko langileen artean kudeatu da elkarlanean-.

Diputatu Nagusiaren Kabineteak bere gain hartutako lana gehitu egin zenez, zeregin dokumentaletan aritzen ziren langileak beste arlo batzuetako lanak hartu behar izan zituzten. Horren ondorioz, prentsa erreferentziei buruzko dokumentazio produktuak egin, eguneratu eta jarraitzeko xedea zuen enpresa esleipendunak, kontratua indarrean izan zuen azken bi hilabetetan, laguntza administratiboari lotutako zereginak gauzatu zituen. Aipatutako enpresa zen aukera bideragarri bakarra zerbitzua eskaintzen jarraitzeko.

Egoera hori araututa gelditu zen 2009ko maiatzaren 12ko Diputatuen Kontseiluaren erabakiaren bidez, zerbitzu horiek kontratatzeko prozeduraren deialdia egin baitzen. Esleipen horretan laguntza administratiboari lotutako zeregina sartu zen.

- Bideo informatiboak

Komunikazio Zuzendaritzak bere gain hartu zuen Foru Aldundiaren Interneteko kanala elikatzeke konpromisoa (Gipuzkoa TV), Aldundiaren ohiko jarduera aipagarrienei eta eguneroko eginkizunei buruzko albisteak emateko.

Foru Aldundiak ez zuenez azpiegitura propiorik, soluzio eraginkorra eta merkeena zen, Komunikazio Zuzendaritzaren iritziz, Teledonosti enpresari erostea telebista kate horrek Aldundiaren erakunde ekitaldien inguruan egindako bideo informatiboak. Kate horrek, orotariko jarraipena egiteaz gain, Gipuzkoa osoko estaldura eskaintzen zuen. Berezitasun hori betetzeak alde batera uzten zuen beste edozein aukera kanpoko hornitzaileei dagokienez,



### 3.4 "III.4 DIRU-LAGUNTZAK" ATALARI EGINDAKO ALEGAZIOAK

#### - Akats orokorrak

*"Aztartu diren 10 espedientetan, 13,3 milioi euroko diru-laguntzak ematen dituzten 5 deialdiri dagozkienak (3, 4, 5, 6 eta 7 deialdiak) ez dago erasota onuradun izaera eskuratzeko 3/2007 Foru Arauaren 12.2 artikuluan aurreikusitako betekizunak egiaztatu direnik".*

#### Alegazioa

Aipatutako deialdi guztiak aurreko Kiroletako eta Kanpo Ekintzako Departamentuari dagozkio, baina ez da guztiz egia hor dioena, zeren eta, kasu gehienetan, diru laguntzak eskatzeko ereduak, betetzen baitituzte pertsona onuraduna izatea eragozten duten debeku egoeretan ez daudela frogatzeko erantzukizun aitorenaren betekizunak, hala jasotzen baitu 12. artikuluko 8. atalean 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoak.

Beste alde batetik, diru laguntzen entitate onuradunak Foru Ogasunarekin egunean egotearen egiaztapena Departamentuak berak egiten du, horretarako dagoen aplikazio informatikoan kontsultatuz. Aipatutako deialdietan ez zitzaizkien gehitu zegozkien espedienteek, eta ez ziren elektronikoki artxibatu ere; horregatik ez dago jasota egiaztapen hori.

*"Guztira 1,7 milioi euroren zenbatekoan esleitutako 7 diru-laguntza zuzeni eta 6 diru-laguntza izenduni dagozkien espedienteetan ez dago justifikaziorik ordainketa aurreratua egin aurretik bermeak eratzeko eskaerarik ez egin izateko. Gainera, 5 deialdi arautzen dituzten oinarri arauak, guztira 13,5 milioi euro eman dituztenak, aurrerakinak egiteko aukera aurreikusten dute, bermeak eratzeko ez eskatzeko justifikaziorik erasota ez dagoela (3/2007 FAren 16.2.j artikulua)".*

#### Alegazioa

Apirilaren 29ko 24/2008 Foru Dekretuak, Diru Laguntzen Foru Arauaren Erregelamendua onartzen duenak, 21. artikuluan dio zenbat kolektibok ez dutela bermea eratzeko obligaziorik, eta horien artean daude, hain justu, HFEEak auzitan jarritako diru laguntzen hartzaile diren entitate gehienak.

Azken hitz-tartean aipatutako deialdietako bi aurreko agintaldiko Kiroletako eta Kanpo Ekintzako Departamentuarenak dira. Alde horretatik, aurreko paragrafoan adierazitakoa izan behar dugu kontuan, alegia, diru laguntzen foru arauaren erregelamenduko 21.2 artikuluan jasotakoaren arabera, bermea eratzeko obligaziotik kanpo geratzen direla, besteak beste, 3.000 eurotik behera emandako diru laguntzen onuradunak, eta irabazi asmorik gabeko entitateak, bai eta horien federazioak, konfederazioak edo elkarteak ere, baldin eta gizarte ekintzako edo nazioarteko lankidetzako proiektu edo programak garatzen badituzte. Gure iritziz, federazioak eta kirol klubak, eragiten diguten bi deialdietako entitate onuradunak, guztiz babestuko lituzke salbuespen horrek.





Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

HFEEak adierazi dituen beste oinarri arautzaile batzuei dagokienez,, hain zuzen ere, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sarearen programaren oinarri erregulatuzaileei dagokienez, kontuan izan behar da onuradunak Euskadiko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sarearen eragile gisa egiaztatuta daudela eta ikerketan aritzen diren diru irabazirik gabeko erakundeak direla. Diru laguntzak zentro horiek egindako ikerketetarako eta inbertsio proiektuetarako ematen dira eta, beraz, interes publikoa dute, eta ez ekonomikoa. Diru Laguntzen Foru Arauak 21.2 artikuluan aurreikusitakoa aintzat hartuta, justifikatuta dago % 10eko aurrerakina bermerik gabe ematea.

Azkenik, enpresa-ekimena sustatzeko deialdiari dagokionez, aurreko apartatuetan adierazitako justifikazioa errepikatu behar dugu: Diru Laguntzen Foru Arauaren erregelamenduak dio badirela zenbait kolektibo bermea aurkezteko obligaziotik salbuetsita daudenak, horien artean diru laguntza hauen entitate onuradunak (fundazioak, irabazi asmorik gabeko elkarteak, berrikuntza zentroak eta eskolak), betiere ez badute baliabide nahikoa diruz lagundutako jardueraren exekuzioa aldi baterako finantzatzeko<sup>4</sup>.

*“Beste erakunde batzuekin elkar hartuta finantzatutako proiektuetan, zenbait kasutan ez dago erasota erakunde horietatik jasotako funtsen zenbatekoa, jatorria eta diruz lagundutako jardueretarako erabili direla egiaztatu denik (3/2007 FAREN 29.4 artikulua). Egoera hau 2 deialdiren babesean emandako 3 diru-laguntzetan ikusi dugu”.*

#### Alegazioa

- Gipuzkoako Zientzia eta Teknologia Sareari emandako diru laguntzen deialdiak – 2008 eta 2009.

Eskaera guztietan jasota uzti zen deialdi hauetan aurkeztutako proiektuak finantzatzeko beste diru laguntzarik eskatuta zegoen edo ez, horrela eskatzen baitzen eskaera hauek aurkezteko erabili zen diru laguntzen aplikazioan.

Txosten honetan aipatzen diren espedienteetako bik diru laguntzak eskatuta zituztela adierazi zuten, zehazki, CDTIri eta Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioari. Besteak ez zuen diru laguntza eskaerarik eginda eskaera aurkezteko unean, baina aitortu zuen Hezkuntza eta Zientzia Ministeriotik laguntza bat jaso duela justifikazioa aurkezteko unean.

Egiaztatu ahal izan da ezen azkenean laguntzak ez direla eman, edo, bestela, ez dutela proiektuaren kostu osoa gainditu.

---

<sup>4</sup> Foru Arauak bermeak aurkeztetik salbuesten ditu soil-soilik “gizarte ekimeneko edo nazioarteko kooperazio proiektu edo programak garatzen dituzten” taldeak. Nolanahi dela ere, dekretu edo onuradun bakoitzeko funtsatu egin beharko litzateke bermeak aurkeztetik salbuestea.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

*“Zenbaitetan ez dago erasota onuradunak hiru eskaintza egiteko eskaria egin duenik diruz lagungarri diren gastuak kontratatu aurretik, 3/2007 FAren 30.3 artikuluan ezarria dagoen legez. 2009ko urtean egoera hau 2 diru-laguntza izendunetan azaleratu zaigu, 9 diru-laguntza zuzen eta 3 deialdiren babesean emandako 3 diru-laguntza”.*

#### Alegazioa

- Emaus Fundación Social entitateari hondakinak berreskuratu eta berrerabiltzea helburu duen zentroa instalatzeko emandako diru laguntza.

Espedientean dokumentatuta agertzen da hiru enpesari eskaintza bana eskatu zitzaizela, eskaintzak aurkeztu zituztela, eta kontratazio jakin batzuei dagokien txosten tekniko zurigarria ere eskatu zela<sup>5</sup>.

*“3/2007 FAren 30.4 a) artikulua agintzen du ondasun zerrendan jasotzeko gai diren ondasunen erosketa, eraikuntza, zaharberritzea eta hobekuntza xede duen diru-laguntzaren onuradunak, ondasunak zertarako eman ziren, hartarako erabili beharko dituela ondasunak, 5 urte (erregistro publikoan erregistra daitezkeen ondasunak) eta 2 urte (gainerakoak) bitarteko epean. Aztertutako espediente batean, nagusiki ikerketarako ekipamenduak erosi eta egokitzeko diru-laguntzei dagokiena, ez dago erasota alderdi hauek justifikatu direla”.*

#### Alegazioa

“i-Gipuzkoa 2010: enpresak” programaren onuradunak izateko, zentroek ikerkuntzari emanda egon behar dute, eta irabazi asmorik gabeko erakundeak izan. Programa honen bidez diruz laguntzen diren inbertsioak zientzia ekipamendu aurreratua eskuratzea eta ikerketetarako instalazioak egokitzera xedatzen dira. Inbertsio horiek oso handiak izaten dira oro har, eta, normalean, zentroak berak finantzatzeaz gain, hainbat administrazio ere finantzatzen dute: EAEkoak, Espainiakoak eta Europakoak.

Zehazki, aztertu diren era horretako bi espedienteak hauek dira: Imajina Molekular eta Funtzional Preklinikoko Unitaterako gela zuriak eta ekipamendua eskuratzea, bi milioi eurotik gorako inbertsioa izan duena, eta Dual Beam ekipamendua, milioi batetik gorakoa. Ekipo eta azpiegitura horiek ikerketara xedatzen dira berariaz. Bi kasuetan, laguntza jaso duten zentroak ikerketa kooperatiboko zentroak dira, arlo estrategikoetan ikerketan aritzen direnak. Diru irabazirik gabeko zentroak dira, Gipuzkoako Foru Aldundia erakunde bazkidea da eta Patronatuan ordezkartza du. Gainera, lan taldeetako bat Hezkuntza eta Zientzia Ministerioarekin batera finantzatzen da hitzarmen baten bidez, eta obligazio hori hitzarmenean jasota dago.

<sup>5</sup>

Akatsa ez dagokio Emaus Fundazioari, Izan Fundazioari baizik.



Kontuan izanda onuradunen izaera, laguntza jasotzen duten azpiegituren eta ekipamenduen ezaugarriak, horiek eskuratzeko egin behar den ahalegin handia eta erakundeek erabaki organoetan duten parte hartze zabala, ziurtatuta dago diru laguntza eman zen helburu jakin horretara xedatuko ondasunak bi urtez horretara xedatuko direla. Azpiegitura horiek abian daude, eta hala egiaztatu da, FEDER diru laguntzak aurkezteko auditoreek onuradun horiei egindako ikuskapenetan.

### Gizarte zerbitzuen hitzarmenak: eguneko zentroak eta egoitzak

70/1993 Foru Dekretua, gizarte zerbitzuetako gaietan erakunde publiko eta pribatueta hitzartutako jardura burutzeko prozedura ezartzen duena, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoan gizarte zerbitzuen sistema antolatzen duen 4/2001 Foru Dekretua (HFEEak atal honetan aipatzen duena) ez dira jada aplikagarri Gizarte Politikako Departamentuaren jardura hitzartuan. Egia da hitzarmen zaharretan bi dekretu horiek agertzen direla, baina egia da, orobat, jada ez direla agertzen jardura hitzartua arautzen duten xedapenetan.

Zabaltzeen publizitateari dagokionez (gehienetan plazak gehitzea), Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legearen garapenaren zain gaude, hark xedapen gehigarri batean baitio Eusko Jaurlaritzak arautuko duela Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren itunaren araudia.

### 3.5 "III.5 LANGILERIA" ATALARI EGINDAKO ALEGAZIOAK

Atal honetan honako hau dio HKEEak:

*"GFAk 2009an erdi mailako 81 teknikari kontratatu ditu apiriletik uztaile bitarteko errenta kanpainarako. Azken urtealdiotan behin eta berriz egin diren kontratazio hauek programako bitarteko funtzionario moldearen baitan egin dira eta Lanpostuen Zerrendan ageri ez diren lanpostuak dira".*

Alegazioa

Gipuzkoako Foru Aldundiak, 2008. urtean, lanpostu-zerrenda aldatu zuen eta kanpainetan laguntzeko erdi mailako teknikarien 20 lanpostu sortu zituen aldizkako langile finkoentzat. Horrela, programako bitarteko funtzionarioen kontratazioak kpuru horretan ere murriztu ziren. Une hauetan, errealitatea etengabe aldatzen ari da, eta gero eta gehiago dira etxeetara bidaltzen diren aurrelikidazioak edo bide telematikoak aurkezten diren aitorpenak; horren ondorioz, ez da erraza aurrez jakitea zelako eran egokitu beharko den errenta mekanizatua egiteko laguntza zerbitzuak behar dezakeen plantilla. Horregatik, uste dugu egoera horretan zuzurra dela lanpostu kopurua haditzeari buruzko erabakiak atzeratzea.

### 3.6 "III.7 ULIAZPI ERAKUNDE AUTONOMOA" ATALARI EGINDAKO ALEGAZIOAK

Organismo autonomo honi dagokionez, HFEEak honako alderdi hauek nabarmendu ditu, besteak beste:



*“Guztira 471.413 euroko 6 kontratuan (BEZ barne), ez dira SPKLn aurreikusitako prozedura negoziatuak izapidetu. Gainera, ekitaldian zehar 8 hornitzailei elikadura eta material teknikoko hornigaiak erosi zaizkie, guztira 303.245 euroan (BEZ barne); horientzat kontratazio espedienteak egin zitezkeen aleko prezioetan edo sortetan”.*

#### Alegazioa

HFEEak adierazi dituen 6 prozedura negoziatuei dagokienez, esan beharra dago horien bitartez zerbitzu medikuak kontratatu direla, adimen ezgaitasun larriaren alorrean hainbat espezialitate eta esperientzia dituztenak, eta gure erabiltzaileei arreta egokia eskaintzeko beharrezkoak direnak. Guztiz desberdinak diren zerbitzu batzuetan banatua dago kontratatutako zenbatekoa: neurologian eta pediatrian espezializatutako medikuntza-zerbitzuak, eta beraz, egokitzat jotzen da kontratazio independenteak egitea, eta egin ere halaxe egiten da.

Beste alde batetik, Uliazpik zenbait jarduera antolatzen zituen, eta horien artean, Gureak Tailer Babestuetan halabeharrez egin beharreko lantegi okupazionalak zeuden, hori baita aipatutako zerbitzua eskaintzen duen Erakunde bakarra. Nolanahi ere, gaur egun ez da adierazitako zerbitzu hori eskaintzen.

Atal honetako azken hitz-tartean, HFEEak dio erosketa jakin batzuetan bazegoela kontratazio espedienteak egitea. Horri dagokionez, esan beharra dago ezen eskuratu beharreko zenbait produkturen berezitasuna eta obra txikiak egiteko orduan kontuan izan beharreko ezaugarri bereziak eta berehalakotasuna direla eta, kontratazio horiek hornitzaile kopuru handi bati esleitzen zaizkiola deszentralizatuta. Nolanahi ere, kontratazioak zentralizatzeke eta lehiaketa publiko bidez esleitzeko aukera aztertzen ari dira.

*“GFAREN hornitzaileekin 107.216 euroko gastuak kontratatu dira (BEZ barne), Uliazpi Erakunde Autonomoaren eta GFAREN arteko kontratazio sistema zentralizatueta atxikimendurik izan gabe; horrek SPKLren 187tik 191ra bitarteko artikulua urratzen ditu”.*

#### Alegazioa

Gipuzkoako Foru Aldundiak, otsailaren 22ko 3/2011 Foru Dekretuaren bitartez, Foru Kontrataziorako Zentrala sortu zuen, eta bertan, foru-sektore publikoa osatzen duten erakundeak kontratazio-sistema honetara atxiki ahal izatea jasotzen da.

Hori dela eta, Uliazpiko Gobernu Batzordeak, joan den maiatzaren 9an egindako bilkuran, eskurapen zentralizatuko sistema horretara atxikitzea erabaki zuen, eta beraz, kontratazioak horrela gauzatzea erabaki da.



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## **BATERAKO BOTO PARTIKULARRA, HKEE-REN LEHENDAKARIORDE DEN JOSÉ MIGUEL BONILLA REGADERA JAUNAK ETA MARIANO GARCÍA RUIZ KONTSEILARI JAUNAK GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOAREN 2009-KO KONTU OROKORRAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI JARRITAKOA**

Baterako boto partikular hau izenpetzen dugunok adierazi nahi dugu, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2009ko Kontu Orokorraren fiskalizazio txostenean jasotako azken iritziarekin bat gatozen arren, ez gaudela ados ondotik zehaztutako auziei bertan eman zaien tratamenduarekiko:

1. Fiskalizazio-gai izan diren beste administrazio batzuetan gertatzen ez den bezala, HKEEk onartu du Gipuzkoako Foru Aldundiaren Diruzaintza Geldikin Kontsolidatuak (aurrekontua, kreditu txertaketak eta kreditu osagarriak finantzatzeko baliabidea, aurrez aipatutako 125. artikulua araberak) gauzatutako mailegu eta kredituetatik erabili gabeko saldoa barne hartzea. Baldin eta HKEEk irizpidea homogeneoki ezarri izan balu, urteko kontuei buruzko iritziak saldo horri buruzko ez-betetzea jasoko zukeen, 185 milioi eurokoa, eta honenbestez, ez litzateke egongo geldikinaren konturako finantzaketarik, honek 142 milioi euroko defizita izango lukeelako.
2. Txostenaren IV. atalak Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta foru sozietate publiko baten zorpetzea jasotzen du, 700 milioi eurokoa 2009ko abenduaren 31n; ordea, ez da zorpetze honek izan duen bilakaeraren berri ematen, 2010eko ekitaldirako aurrekontuek zorpetze muga modura 1.322 milioi euroko zenbatekoa aurreikusia zutela gogoan izanik.
3. Txostenaren V. atalak, Diruzaintza Geldikinari dagokionez, Finantza eta Aurrekontuen Araubideari buruzko 4/2007 Foru Arauaren 125. artikuluan jasotako kontzeptuez bestelakoak darabiltza. Bada, "Diruzaintza Geldikin Erabilgarri" kontzeptua erabiltzen da Diruzaintza Geldikin kontzeptua beharrez, aipatutako artikulua dioen moduan.





## I. INTRODUCCIÓN

El presente informe sobre la Cuenta General del Territorio Histórico de Gipuzkoa del ejercicio 2009 se efectúa de acuerdo con la Ley 1/1988 del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, estando incluido en el Plan de Trabajo del TVCP.

La Cuenta General del Territorio Histórico de Gipuzkoa comprende todas las operaciones presupuestarias, patrimoniales y de tesorería llevadas a cabo durante el ejercicio 2009 por:

- La Diputación Foral de Gipuzkoa (en adelante, DFG).
- El organismo autónomo foral Fundación Uliazpi (atención residencial a deficientes mentales profundos).
- Las sociedades públicas forales Informatika Zerbitzuen Foru Elkartea-Sociedad Foral de Servicios Informáticos, SA (participada al 100%, presta servicios informáticos a la administración foral y municipal), Bidegi, Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia-Agencia Guipuzcoana de Infraestructuras, SA (participada al 100%, su objeto es el mantenimiento, conservación, construcción y explotación de las autopistas A-8 y AP-1, sus instalaciones y servicios) y Etorlur Gipuzkoako Lurra, SA (participada al 100%, su objeto es promover, ordenar, urbanizar, comprar y vender suelo destinado a la ubicación de actividades económicas, viviendas y toda clase de equipamientos públicos, así como la adquisición, gestión y explotación de suelo susceptible de uso agrario).

La fiscalización abarca los siguientes aspectos:

- Legales: en las áreas presupuestarias, endeudamiento y operaciones financieras, personal, contratación de obras, compras y servicios, concesión de subvenciones y normativa sobre ingresos de derecho público.
- Contables: se analiza si la Cuenta General se elabora de conformidad con los principios contables que resultan de aplicación.
- Análisis financiero de la situación económica de la administración foral.
- El alcance del trabajo no incluye un análisis sobre la eficacia y eficiencia del gasto. No obstante, las deficiencias detectadas se detallan en el epígrafe "Consideraciones sobre el sistema de control interno y procedimientos de gestión".

El organismo autónomo y las sociedades públicas forales disponen de los correspondientes informes de auditoría externa.

El Plan de Trabajo aprobado por el Pleno del TVCP incluye la fiscalización del convenio suscrito en 2003 entre la Cofradía de Pescadores de Pasai San Pedro y la DFG, a petición de la Comisión de Hacienda y Finanzas de las Juntas Generales de Gipuzkoa. Este convenio, por el que la DFG enajenaba a la Cofradía su participación en Pasaiako Izotza, SA, fue fiscalizado parcialmente por el TVCP en el ejercicio 2003, incluyéndose las deficiencias detectadas en el Informe sobre la Cuenta General del Territorio Histórico de Gipuzkoa



correspondiente a dicho ejercicio. La Sociedad recibió sendas subvenciones de capital en el ejercicio 2007, por 96.000 y 300.000 euros, respectivamente, destinadas a financiar las inversiones realizadas en la remodelación y acondicionamiento de la fábrica de hielo de Pasaia, que fueron fiscalizadas, incluyéndose las deficiencias detectadas en el Informe sobre la Cuenta General del Territorio Histórico de Gipuzkoa correspondiente al ejercicio 2007. La DFG no ha realizado ninguna operación más con estas dos entidades (ver epígrafe VI).



## II. OPINIÓN

### II.1 DIPUTACIÓN FORAL

#### II.1.1 OPINIÓN SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LEGALIDAD

##### EXENCIONES, DEDUCCIONES Y BONIFICACIONES FISCALES (ver A.8)

1. El 9 de septiembre de 2009, el Tribunal de Primera Instancia de la Unión Europea, desestima los recursos planteados por la DFG en relación con las decisiones de la Comisión Europea de declarar ilegales el artículo 14 de la Norma Foral 11/1993, el artículo 26 de la Norma Foral 7/1996 y la Disposición Adicional Décima de la Norma Foral 7/1997. El 23 de noviembre de 2009 la DFG interpone recursos de casación ante el Tribunal de Justicia de las Comunidades Europeas contra las anteriores sentencias. Con la resolución de los recursos de casación por el Tribunal de Justicia de las Comunidades Europeas, en fechas 9 de junio y 28 de julio de 2011, se confirma definitivamente la consideración de ayudas ilegales las reguladas por el artículo 14 de la Norma Foral 11/1993, el artículo 26 de la Norma Foral 7/1996 y la Disposición Adicional Décima de la Norma Foral 7/1997.

A partir del ejercicio 2007 la DFG realizó actuaciones encaminadas a la recuperación de las ayudas objeto de litigio. En relación con estas actuaciones, la Comisión Europea ha interpuesto el 15 de abril de 2011 una demanda ante el Tribunal de Justicia de las Comunidades Europeas contra el Reino de España, al considerar que las medidas adoptadas no eran suficientes para la recuperación de las ayudas en el caso de las deducciones y bonificaciones fiscales contempladas en el artículo 26 de la Norma Foral 7/1996 y la Disposición Adicional 10ª de la Norma Foral 7/1997.

